



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VII. legegintzaldia

Iruña, 2010eko azaroaren 2a

105. ZK.

A U R K I B I D E A

A SAILA:

Foru lege proiektuak:

—Foru Lege proiektua, 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa (2. or.).

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua izapidetzeko egutegia (31. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzeko arauak (33. or.).

A saila:
FORU LEGE PROIEKTUAK

Foru Lege proiektua, 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 18.1. artikulua aitortzen dion legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Gobernuak, 2010eko urriaren 29an hartutako Erabakiaren bidez, 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua igorri du Nafarroako Parlamentura.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 126, 153 eta 155. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua bideratzea hori izapidetzeko Arauek ezarritako jardunbideari jarraituz. Arau horiek Legebiltzarreko Mahaiak 2010eko urriaren 29an hartutako Erabakiaren bidez onetsiak dira.

2. Proiektu horretaz irizpena emateko ahalmena Ekonomia eta Ogasun Batzordearen esku uztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Proiektua argitaratzen denetik **epe bat irekiko da, 2010eko azaroaren 18ko hamahiruetan bukatuko dena**, parlamentu-taldeek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkeztu ahal izateko, Erregelamenduko 127. eta 154. artikuluetan ezarritakoarekin bat.

Iruñean, 2010eko urriaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

2011rako Nafarroako aurrekontu orokorrei buruzko Foru Lege proiektua

I. TITULUA

Kredituak eta horien aldaketak

I. KAPITULUA

Hasierako kredituak eta haien finantzaketa

1. artikulua. Nafarroako Aurrekontu Orokorren esparrua.

Onetsi egin dira 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrak. Atal hauek dituzte:

Nafarroako Parlamentuaren, Comptos Ganberaren eta Arartekoaren aurrekontua.

Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen aurrekontua.

Nafarroako Kontseiluaren eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseiluaren aurrekontua.

Foru Komunitateko fundazio publikoen aurrekontuak.

Foru Komunitateko sozietate publikoen jarduketa, inbertsio eta finantzaketa programak, baita finantzen egoera-orriak ere.

2. artikulua. Kredituen eta eskubide ekonomikoaren zenbatekoa.

1. Aurreko artikuluan aipatutako aurrekontueta-ko gastuen egoera-orrietan sartutako programak betetzeko onetsi diren kredituek, bateratuta, 4.188.279.797 euro egiten dute.

2. Aurreko artikuluan aipatutako aurrekontuen diru-sarreraren egoera-orrietan, aurrekontu ekitaldi honetan ustez likidatuko diren eskubide ekonomikoaren zenbatespenak agertzen dira; hain zuzen ere, 4.188.279.797 euro egiten dute bateratuta.

II. KAPITULUA**Aurrekontuetako kredituen aldaketa**

3. artikulua. Aurrekontuetako kredituen aldaketa.

Aurrekontuetako kredituen aldaketak Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen aginduen arabera izanen dira, baldin eta foru lege honek agindu horiek aldatzen ez baditu.

Aurrekoa gorabehera, kontu-sailen arteko funts mugimenduak ez dira aurrekontu aldaketatzat hartuko, baldin eta kontu-sail horietako kredituek helburu berbera badute, eta Europar Batasunak, horiek hein batean kofinantzatzen dituzenez, gastuen erabileraren gaineko kontrola hobetzea eskatzen duelako soilik bereizten badira.

4. artikulua. Kreditua zabaltea.

Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 47. artikuluko a)tik g)ra bitarteko letretan aipatutako kredituez gain, 2011ko ekitaldian zabalgarriak izanen dira ekintza terroristen ondorioz onets daitezkeen dirulaguntza eta maileguak emateko dauden kontu-sail guztiak edo ekitaldian helburu horrekin sortu beharrekoak.

Aurrekoen gainera, hauek ere zabalgarriak izanen dira:

1. Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontu-sailok:

a) 010001-01000-2275-921100 kontu-saila, "Hauteskundeak" izenekoak. Kontu-sail horri aplikatu ahalko zaizkio hauteskundeak egiteko behar diren lan eta inbertsio guztien edonolako gastuak.

b) 010004-01100-2263-921700 kontu-saila, "Gastu juridiko-kontentziosoa" izenekoak.

c) 020002-04100-1001-921400 kontu-saila, "Lehendakari ohi, kontseilari ohi eta Nafarroako Gobernuko beste goi kargudun batzuentzako presazioak" izenekoak.

d) 020002-04100-1600-921402 kontu-saila, "Gizarte Segurantzako hitzarmena arautzea" izenekoak.

e) 020002-04100-1620-921400 kontu-saila, "Langileen arloko erabakiak aplikatzeko funtsa" izenekoak.

f) 020002-04100-1800-921400 kontu-saila, "Zerbitzuen onarpenak, osagarri berriak, familia-laguntzak, gradua, antzinasuna, eszedentzietako itzultzeak eta beste batzuk" izenekoak.

g) 020002-04100-1810-921400 kontu-saila, "Langileen lansariak, aurreko ekitaldietakoak" izenekoak.

h) 020002-04100-1820-921402 kontu-saila, "Epaiak betearaztea" izenekoak.

i) 020002-04100-1820-921403 kontu-saila, "Lan istripuengatik jaso beharreko kalte-ordainak" izenekoak.

j) 020002-04300-1614-211100 kontu-saila, "Aldez aurretik erretiratzeagatik jaso beharreko kalte-ordainak" izenekoak.

k) 020002-04300-1620-224100 kontu-saila, "Osasun laguntza. Erabilera berezia" izenekoak.

l) 050000-02800-4809-131100 kontu-saila, "Udaltzain laguntzaileen prestakuntzarako beka" izenekoak.

m) 051000-02100-2274-132102 kontu-saila, "Genero indarkeriatik babesteko segurtasun zerbitzuak" izenekoak.

n) 054002-02730-4609-131100 kontu-saila, "Larrialdiei, hondamendiei edo ezbeharrei aurre egiteko laguntzak" izenekoak.

ñ) 054002-02730-7609-131100 kontu-saila, "Larrialdiei, hondamendiei edo ezbeharrei aurre egiteko laguntzak" izenekoak.

o) 060001-06000-4819-112100 kontu-saila, "Profesionalen Elkargoentzako transferentziak" izenekoak.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontu-sailok:

a) 112002-11420-9409-923700 kontu-saila, "Diru-sarrearen itzulketak" izenekoak.

b) 131002-15100-3509-923100 kontu-saila, "Karbono Funtzaren kontuko gastuak" izenekoak.

c) 131002-15100-6002-923100 kontu-saila, "Lurra eta natur ondasunak" izenekoak.

d) 131002-15100-6020-923100 kontu-saila, "Instalazio berriko eraikuntzak eta obrak, ondare higiezina birmoldatzea eta janzteak" izenekoak.

e) 131002-15100-8500-923100 kontu-saila, "Sektore publikoko akzioak erostea" izenekoak.

f) 131002-15100-8600-923100 kontu-saila, "Sektore publikotik kanpoko akzioak eta partaide-tzak erostea" izenekoak.

g) 150000-17000-6090-92340 kontu-saila, "Iruzur fiskalaren aurkako plana" izenekoak.

h) 151000-17033-2273-467900 kontu-saila, "Sistemetan datu fiskalak jaso eta sartzeko zerbitzuak" izenekoa.

i) 160000-16100-2269-941100 kontu-saila, "Transferentzia berriak eskuratzearen ondoriozko gastuak" izenekoa.

j) 131002-15100-6020-923104 kontu-saila, "Higiezinei buruzko Plana. Administrazio bulegoak" izenekoa.

k) 100000-10000-4709-441100 kontu-saila, "AUDENASA. Merkataritza politika" izenekoa.

Toki Administrazioiko Departamentuko kontu-sailok:

a) 211002-21400-7609-456200 kontu-saila, "Hondakinen tratamendurako partzuergoa edo partzuergoan bildutako entitateak: ezarpena" izenekoa.

b) 211002-21400-4609-456200 kontu-saila, "Hondakinen tratamendurako partzuergoa: funtzio-namendurako laguntza" izenekoa.

c) 211004-21200-4609-922300 kontu-saila, "Udaletako osasun langileen soldatak eta lansariak" izenekoa.

Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza Departamentuko kontu-sailok:

a) 320000-32200-4809-261400 kontu-saila, "Etxebizitzen errentarientzako dirulaguntzak" izenekoa.

b) 320000-32200-7800-261402 kontu-saila, "Etxebizitza bioklimatikoetarako dirulaguntzak eta ziurtapen energetikoak etxebizitzan" izenekoa.

c) 320000-32200-4400-261400 kontu-saila, "VINSAREN konpentsazioa, alokairu poltsaren defizitgatik. 4/2006 Foru Dekretuaren 100.3 artikulua" izenekoa.

Hezkuntza Departamentuko kontu-sailok:

a) 400000-41000-1220-322000 kontu-saila, "Aldi baterako kontratatutako langileen ordainsariak" izenekoa.

b) 400000-41000-1600-322000 kontu-saila, "Gizarte Segurantza" izenekoa.

c) 410002-41140-4609-322D00 kontu-saila, "Eskola-kontzentrazioetarako eta hezkuntzarako erabiltzen diren udal eraikinetarako dirulaguntza" izenekoa.

d) 410004-41150-2210-324100 kontu-saila, "Jantokiak" izenekoa.

e) 410004-41150-2230-324100 kontu-saila, "Eskola garraioa" izenekoa.

f) 400000-41000-1800-322000 kontu-saila, "Funtzionarioen zerbitzuen onarpenerako, osagarri berrietarako, familia-laguntzarako, gradurako, antzinasunerako, eszedentzietako itzultzeak eta beste batzuetarako aurreikuspena" izenekoa.

g) 422000-42140-4609-322100 kontu-saila, "Udalekin hitzarmenak, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eskolatzeko" izenekoa.

h) 431000-43100-6001-325100 kontu-saila, "Nafarroako Unibertsitate Publikoarentzako desjabetzeak" izenekoa.

Osasun Departamentuko kontu-sailok:

a) 54. programa multzoko kontu-sailak, honako kode ekonomiko hauetakoak: 2213, 2214, 2215, 2216, 2286, 2287 eta 2500.

b) 540000-52000-1800-311100 kontu-saila, "Zerbitzuen onarpenak, osagarri berriak, familia-laguntzak, gradua, antzinasuna, eszedentzietako itzultzeak eta beste batzuk" izenekoa.

c) 540000-52000-1810-311100 kontu-saila, "Langileen lansariak, aurreko ekitaldietakoak" izenekoa.

d) 547002-52370-4809-313100 kontu-saila, "Farmaziako prestazioak" izenekoa.

e) 547002-52370-4809-313102 kontu-saila, "Zurgatzaileak eta beste osasun produktu batzuk" izenekoa.

f) 549000-52204-2276-312700 kontu-saila, "Plasma zatitzeko lanak, farmakoak ekoizteko" izenekoa.

Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko kontu-sailok:

a) 621001-61200-2090-453200 kontu-saila, "Iruña-Logroño A-12 autobiarene kanona" izenekoa.

b) 630000-62110-4809-441103 kontu-saila, "Nafarroako beste toki batzuetako garraio publiko-arentzako ekarpena, gazteak" izenekoa.

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko kontu-sailok:

a) 710001-71230-4700-414210 kontu-saila, "Aseguru primen konpentsazioa Agroseguroren bitartez" izenekoa.

b) 720000-72130-4700-414100 kontu-saila, "Nafarroako Ubidearen bidezko ureztaketene kanoa" izenekoa.

c) 720001-72120-6019-414300 kontu-saila, "Lurren jabetza antolatze eta lurzati berrantolamendua egiteko obrak, LGP LGENF" izenekoa.

d) 721000-72210-7701-413102 kontu-saila, "Nekazaritza industrializatu eta merkaturatzeko inbertsioetarako dirulaguntza. LGP LGENF" izenekoa.

e) 721002-72230-7700-412100 kontu-saila, "Nekazaritza-ustategien eraginkortasuna hobetzea. LGP LGENF" izenekoa.

f) 722000-72310-4090-412100 kontu-saila, "Landa Ingurune Garapen Iraunkorri buruzko Legearen kofinantzaketa Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioarekin batera" izenekoa.

g) 740002-74200-4809-456302 kontu-saila, "Partikular eta sozietateentzako kalte-ordainak, aseguruak eta laguntzak" izenekoa.

h) 740002-74200-7609-456700 kontu-saila, "Oihan Planaren dirulaguntzak toki entitateentzat. LGP LGENF" izenekoa.

i) 740002-74200-7700-456702 kontu-saila, "Oihangintzako industrientzako laguntzak. PDR FEADER" izenekoa.

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuko kontu-sailok:

a) 810001-81140-6015-458100 kontu-saila, "Industria azpiegiturako inbertsioak" izenekoa.

b) 830002-81150-8317-422300 kontu-saila, "Birrabiatze-planak finantzatzeko kapital-aurrerakinak" izenekoa.

c) 840001-81210-7709-467303 kontu-saila, "I+G+B proiektuetarako, patenteetarako eta bidegarritasun azterlanetarako dirulaguntzak enprezentzat. 2007-2013 EGEF programa operatiboa" izenekoa.

d) 840001-81210-7819-467302 kontu-saila, "Zentro teknologikoak finkatzeko dirulaguntzak. 2007-2013 EGEF programa operatiboa" izenekoa.

e) 881001-84100-4709-241109 kontu-saila, "Enplegu zentro berezientzako transferentziak, eragiketa arruntetarako" izenekoa.

f) 881001-84100-4819-241104 kontu-saila, "Laneratzeko zailtasun handienak dituzten lan munduan sartzeko programak PO EGF Nafarroa CCI 2007ES052PO009" izenekoa.

g) 881001-84100-4819-241114 kontu-saila, "CEN, UGT eta CCOO erakundeekiko hitzarmena, Enpleguari buruzko Plana garatu eta aplikatzeko" izenekoa.

h) 881001-84100-7709-241100 kontu-saila, "Autonomoentzako dirulaguntzak inbertsioetarako PO EGF Nafarroa CCI 2007ES052PO009" izenekoa.

i) 881001-84100-7709-241200 kontu-saila, "Kooparatiba eta lan sozietateetarako dirulaguntzak, enplegua sostengatzeko" izenekoa.

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuko kontu-sailok:

a) 2279 kode ekonomikokoak, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 14ko 15/2006 Legean aurreikusitako gizarte zerbitzu orokorren zorronetsi zuen ekainaren 17ko 69/2008 Foru Dekretuan ezarritako prestazio bermatuak finantzatzeko direnak eta 900003, 920004, 920005 eta 920006 proiektuetan daudenak. Helburu hori duen kontu-sailik ez badago, sortu ahalko da, behar bezala aplikatzeko

b) 900002-91600-4809-212100 kontu-saila, "Kotizazio gabeko pentsioak" izenekoa.

c) 900003-91700-4609-231500 kontu-saila, "Oinarrizko Gizarte Zerbitzuak" izenekoa.

d) 900003-91600-4609-231500 kontu-saila, "Etxegabeentzako harrera zerbitzua" izenekoa.

e) 900003-91600-4809-231500 kontu-saila, "Bizibiderik gabeko familia nafarrentzako laguntzak" izenekoa.

f) 900003-91700-4809-231602 kontu-saila, "Genero indarkeriaren biktimak izan eta enplegua aurkitzeko zailtasunak dituztenentzako laguntzak" izenekoa.

g) 920006-91830-4809-231402 kontu-saila, "Laguntzak, zerbitzu pertsonalak emateko" izenekoa.

h) 950001-92210-4809-231504 kontu-saila, "Eszedentziengatikoa laguntzak" izenekoa.

i) 950002-92300-2279-231703 kontu-saila, "Asistentziak adingabekoentzat" izenekoa.

j) 950002-92300-4809-231702 kontu-saila, "Familientzako prestazio ekonomikoak" izenekoa.

Zabalgarrak izanen dira gastu fiskaletarako dauden kontu-sail guztiak.

Horrez gain, Nafarroa 2012 Planari dagozkion kontu-sailak ere zabalgarrak izanen dira, bai eta krisi ekonomikoaren kontrako neurri berariazkoak ezartzeko daudenak edo ekitaldian zehar horretarako sortu beharrekoak ere.

5. artikulua. Lanpostu hutsak direla-eta, kreditu soberakinen norakoa.

Lanpostu hutsak direla-eta aurreikus daitezkeen kreditu soberakinak behin-behineko kontratuak finantzatzeko erabili ahal dira, zerbitzuen funtzio-namendu onerako beharrezkoa baldin bada. Xede horretarako sortuko dira kredituak, horiei dagokien programan.

II. TITULUA Langileria gastuak

I. KAPITULUA Jarduneko langileen ordainsariak

6. artikulua. Nafarroako Administrazio Publiko-etako funtzionarioen eta estatutupeko langileen ordainsariak.

2011ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko funtzionario eta estatutupeko langileen ordainsariak ez dute gehikuntzarik izanen ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legearen 2. artikuluan 2010eko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin ezarritako ordainsariei dagokienez. Foru lege horren bidez, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatu ziren. Horrek ez du ezertan galaraziko, hala ere, lanpostu bakoitzaren ordainsarrietan egokitzapenak egitea, bidezkoak badira, lanpostu horren aparteko zailtasun tekniko, dedikazio, erantzukizun, arriskugarritasun edo nekagarritasuneko edukiarekin bat datozela ziurtatzeko.

7. artikulua. Nafarroako Administrazio Publiko-etako lan-kontratudunen ordainsariak.

1. 2011ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko lan-kontratudunen ordainsariak haien hitzarmen kolektiboan zehazten direnak izanen dira, foru lege honen 6. artikuluan finkatutako irizpideei jarraikiz.

2. Nafarroako gainerako administrazio publiko- en zerbitzuko lan-kontratudunen ordainsariak, berriz, administrazio publiko bakoitzak bere aurrekontuetan ezartzen dituenak izanen dira, betiere foru lege honen 6. artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz.

8. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio eta haren erakunde autonomoetako zerbitzuetako zuzendarien ordainsariak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio eta haren erakunde autonomoetako zerbitzuetako

zuzendarien ordainsariak ez dute inolako gehikuntzarik izanen. Ordainsariak, beraz, 50.499,68 eurokoak izanen dira 2011n, hamalau hilekotan banatuta, ezertan galarazi gabe indarra duen araudiaren arabera egokitzen zaizkien graduaz, antzinasunaz eta familia-laguntzaz jasotzen ahal dituztenak, eta jatorrizko izendapenagatik edo ematen dituzten zerbitzuen baldintza bereziengatik plantilla organikoan espezifikoki esleituta dituzten ordainsari osagarriak.

9. artikulua. Nafarroako Gobernu kideen, zuzendari nagusien, erakunde publikoetako zuzendarien eta behin-behineko beste langileen ordainsariak.

1. Nafarroako Gobernu kideen, zuzendari nagusien, erakunde publikoetako zuzendarien eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko behin-behineko gainerako langileen 2011ko ordainsariak ez dute inolako gehikuntzarik izanen ekainaren 11ko 12/2010 Foru Legearen 4. artikuluan 2010eko ekainaren 1etik aurrerako ondorioekin ezarritakoei dagokienez. Foru lege horren bidez, defizit publikoa murrizteko neurri bereziak Nafarroako Foru Komunitaterako moldatu ziren. Hurrengo idatz-zatietan azaltzen dira.

2. Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legearen 35. eta 45. artikuluetan ezarritakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernu kideek, 2011. urtean, ondoren zehazten diren ordainsariak izanen dituzte, hamalau hilekotan banatuta, indarra duen araudiaren arabera egokitzen zaizkien antzinasunaz eta graduaz gainera.

– Nafarroako Gobernu kideen lehendakaria: 69.354,46 euro.

– Kontseilaria: 64.543,22 euro.

3. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 22.4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zuzendari nagusiek 2011. urtean 55.302,66 euroko ordainsariak izanen dituzte, hamalau hilekotan banatuta, indarra duen araudiaren arabera egokitzen zaizkien antzinasunaz eta graduaz gainera.

4. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari buruzko abenduaren 3ko 15/2004 Foru Legearen 109.1 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, erakunde publikoetako zuzendariak, 2011. urtean, ondoko zerrendan zehazten diren ordainsariak izanen dituzte, hamalau hilekotan banatuta, indarra duen araudiaren arabera egokitzen zaizkien antzinasunaz eta graduaz gainera.

a) Erakunde autonomoko zuzendari kudeatzailea, ondoko b), c) eta d) letretan xedatutakoa salbu: 55.302,66 euro.

b) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko eta Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendari kudeatzailea: 85.445,50 euro.

c) Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea: 65.330,72 euro.

d) Nafarroako Larrialdietako Agentziako eta Nafarroako Mendekotasun Agentziako zuzendari kudeatzailea: 54.033,98 euro.

e) Nafarroako Zerga Ogasuneko zuzendaria: 65.292,64 euro.

f) Erakunde autonomoko zuzendariordea eta Nafarroako Larrialdietako Agentziako zuzendaria: 50.499,68 euro.

g) Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendaritzako kideak:

– Giza Baliabideen zuzendaria, Oinarrizko Osasun Laguntzako zuzendaria, Laguntza Espezializatuko zuzendaria eta Administrazio eta Antolaketa zuzendaria: 65.292,64 euro.

– Nafarroako Ospitaleguneko zuzendari kudeatzailea eta Nafarroako Medikuntzako Gune Teknologikoko zuzendaria: 59.546,76 euro.

– Lizarrako Barrutiko zuzendaria, Tuterako Barrutiko zuzendaria, Nafarroako Ospitaleguneko zuzendari medikoa eta Nafarroako Medikuntzako Gune Teknologikoko zuzendariordea: 57.069,46 euro.

– Nafarroako Ospitaleguneko zuzendariorde medikoak, Nafarroako Odol Transfusiorako Zentroko zuzendaria, Nafarroako Ekialdeko Oinarrizko Osasun Laguntzako zuzendariordea, Nafarroako Iparraldeko Oinarrizko Osasun Laguntzako zuzendariordea, Adimen Osasuneko zuzendariordea eta Laguntza Espezializatuko zuzendariordea: 55.579,58 euro.

– Langileria eta Lan Harremanetako zuzendariordea, Kudeaketa Ekonomikorako eta Antolaketa-ren Garapenerako zuzendariordea eta Ikerketa Biomedikoaren Zentroko zuzendaria: 54.575,64 euro.

– Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako zuzendaria, Nafarroako Ospitaleguneko Langilerien zuzendaria eta Erizaintzako zuzendaria, Zentro Psikogeriatrikoko zuzendaria, Lizarrako Barrutiko Oinarrizko Osasun Laguntzako zuzendariordea, Tuterako Barrutiko Oinarrizko Osasun Laguntzako zuzendariordea eta Anbulato-

rioren eta Ospitalez kanpoko Laguntzaren Kudeaketa zuzendaria: 52.105,76 euro.

– Nafarroako Ospitaleguneko Erizaintzako zuzendariordeak: 47.212,34 euro.

– Zentro Psikogeriatrikoko Laguntza eta Presakuntza Programen zuzendari teknikoa: 46.148,06 euro.

II. KAPITULUA

Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboak

10. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioak.

2011ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen klase pasiboen pentsioek ez dute inolako gehikuntzarik izanen, 2010erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 16/2009 Foru Legearen 10.2 artikuluan ezarritakoa bete eta gero.

11. artikulua. Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko sisteman jarraitzen duten funtzionarioen eskubide pasiboen araubiderako arauak.

1. Martxoaren 30eko 13/1983 Foru Legeak indarra hartu baino lehen indarra zuten xedapenek arautuko dute artikulua honetan aipatzen den funtzionarioen eskubide pasiboen araubidea. Soldata erregulatu zaila zehazteko, aipatu foru legearen eta hura betetzeko emandako ordainsarien behin-behineko erregelamenduaren aurreko sistemaren arabera funtzionarioek jasotako ordainsari handienak hartuko dira aintzakotzat, eta horiei Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru legeetan hurrengo urteetarako ezarritako ehunekoak gehituko zaizkie. Salbuespena izanen da lan istripuagatik edo eritasun profesionalagatik jasotako pentsioei buruz artikulua honetan xedatutakoa.

2. Aurreko idatz-zatian aipatu xedapenen arabera, erretiro eta pentsioen ondorioetarako zerbitzualdia zenbatzeko, funtzionarioek zerbitzuan egiazki egindako urteak besterik ez dira kontuan hartuko. Urte horien barrenean sartuko dira administrazio publikoan egiazki egindako urteak, betiere behar den administrazioak aitortuak, Foru Diputazioak 1981eko urriaren 29an eta 2001eko otsailaren 5ean hartutako Erabakiari eta apirilaren 14ko 21/1983 Foru Dekretuari jarraikiz.

Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren edo toki entitateen montepioeren bati atxikitako funtzionarioen erretiro-, alargun- eta umezurtz-pentsioen kasuan, foru lege honek indarra hartu ondoren jardunean hil edo erretiratutakoak badira, honako hauek zenbatuko dira, eta pentsioaren zio den egintza gertatutako egunetik aurrera izanen dute eragina; aipatutako funtzionarioek Gizarte Segurantzaren araubide ezberdinetan kotizatutako aldiak, betiere, aldi horiek montepioei kotizatutako beste batzuekin gainjartzen ez badira, honako hauek finkatzeko ondorioetarako soilik: eskubide pasiboetarako hartzeko zenbagarriak eta dagokion pentsioa kalkulatzeko kotizazio edo zerbitzu-urteengatikako ehunekoa edo kuota.

Aurreko lerroaldean aipatu funtzionarioek sortutako erretiro-, alargun- eta umezurtz-pentsioetarako, inola ere ez dira hurrengoak zenbatuko: aipatu funtzionarioek Gizarte Segurantzaren araubide ezberdinetan kotizatutako aldiak, baldin eta aipatu aldiek, hala badagokio, beste batzuekin batuta, aipaturiko araubideetan pentsiorako eskubiderik sortu badute, salbuespen batekin, hots, SOVI delakoaren prestazioetarako eskubidea sortzeko balio duten aldi kotizatuak, zenbatu eginen baitira horiek.

Bikote egonkorrentzako berdintasun juridikoari buruzko uztailaren 3ko 6/2000 Foru Legearekin bat, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak edo toki entitateek dituzten montepioetakoren baten babesean dauden funtzionarioek alargun-pentsioa sortuz gero, bikotekide egonkorrek ere izanen dituzte eskubide pasibo horiek.

3. Artikulu honen 1. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuz, eta Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren barrenean dauden funtzionario publikoek 2011. urtean hartutako erretiro eta pentsioak finkatzeko, ondoko hau hartuko da kontuan:

a) Eskubide pasiboetan eragina duten lansari kontzeptuen zenbatekoak 2011. urteari dagozkionak izanen dira, hau da, 1983. urteko geroko aurrekontuei buruzko foru legeek finkatutako gehikuntzak aplikatu ondoren sortzen direnak.

Horretarako, 2011rako lansarien zenbatekoak eta garestitasun plusa 2010erako ezarritakoak izanen dira, hots, 2010erako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 23ko 16/2009 Foru Legean xedatutakoak.

Salbuespen gisa, lan istripu edo eritasun profesionalaren ondoriozko desgaitasunagatik erretiro-pentsioen kasuan, bai eta lan istripuz edo eritasun profesionalaren ondorioz hiltzearen ondoriozko alargun- edo umezurtz-pentsioenean ere, funtzionarioa erretiratu edo hil aurreko urtean hark bere

lanpostuagatik jasotako ordainsariet osatuko dute hartzeko arautzailea.

b) 1980ko urtarrilaren 29ko Parekatze Arautik sortutako ordainsari sistematik kanpo geratu ziren udal funtzionarioentzat, horren bigarren xedapen gehigarriko bigarren lerroaldean emandako ahalmenari jarraikiz, pasiboetan eragina duten ordainsari kontzeptuen zenbatekoa honakoa izanen da: funtzionario horientzako 1983ko zenbatekoari hurrengo urteetan izandako gehikuntzak erantsiz ateratzen dena.

4. Funtzionarioek pentsio araubidea finantzatzen lagunduko dute 13/1983 Foru Legearen aurreko araudia aplikatuz ateratzen den zenbatekoaz, ondorengo urteetako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru legeetan ezartzen diren pentsio igoeren portzentajeak erantsirik.

5. 2011ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako Administrazio Publikoetako montepioen gutxieneko erretiro-pentsioa, bai martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko sisteman jarraitzen duten funtzionarioena, bai aipatu foru legean aurreikusitakoari atxikitakoenena, 2010. urterako ezarritakoa izanen da, hots, 13.937,00 eurokoa.

70 urte betetzen dituztenetik aurrera, aurreko lerroaldean ezarritako gutxieneko pentsioaren adinako zenbatekoa jasotzeko eskubidea aitortuko zaie, baita ere, beren borondatez erretiratu eta, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko eskubide pasiboen sisteman jarraituta, dagokien administrazio publikoan 30 urte baino gutxiagoan lan egin dutela frogatzeagatik eguneratu gabeko pentsioa jasotzen dutenei.

6. 2011ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, gutxieneko alargun-pentsioa ekitaldi horretarako ezarriko den lanbide arteko gutxieneko soldataren adinako urteko zenbateko gordina izanen da.

7. Artikulu honetako 6. idatz-zatian xedatutakoa aplikatuko zaie, halaber, martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen aurreko eskubide pasiboen sistema aplikatuz emandako umezurtz-pentsioei, Nafarroako Administrazio Publikoaren Montepioetako edozeinen kargura, zein bere Erregelamenduaren arabera, 1991ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko otsailaren 26ko 5/1991 Foru Legearen hemezortzigarren xedapen gehigarriak emandako idazkera oinarri harturik.

Aurreko lerroaldean xedatutakotik baztertu egiten dira, beraz, aipatu 5/1991 Foru Legean ezarritako aldaketaren aurretik aplikatzen zen araudia-aren arabera emandako umezurtz-pentsio guztiak, onuradunaren ezintasun egoeraren eraginez onartu zirenak izan ezik.

8. Foru Diputazioko funtzionarioen erretiroei eta pentsioei buruzko Erregelamenduaren 8. artikuluko 3. idatz-zatian eta udal funtzionarioen eskubide pasiboei buruzko Erregelamenduaren 10. artikuluan aipatzen diren umezurtz-pentsioak eta udal montepio partikularretan ezaugarri berak dituzten umezurtz-pentsioak onartu egingen dira, baldin eta pentsio horiek eskuratzeko bete beharreko baldintza guztiak betetzen badira pentsioa sorrarazten duen pertsona edo, bestela, alargun-pentsioa jasotzen duen ezkontidea edo bikotekide egonkorrara hiltzen den egunean.

9. Nafarroako Administrazio Publikoetako montepioen alargun-pentsioak bateragarriak dira bai norberak egindako lanarengatik jasotako diru-sarrerekin bai erretiro-pentsioarekin.

10. Ezintasun iraunkorraren deklarazioak, bai eta haren graduenak ere, berrikusi ahal izanen dira, baldin eta onuraduna 65 urtetik beherakoa baldin bada, egoera larriagotu edo hobetzea dela-eta, edo diagnostikoaren akatsaren ondorioz, betiere arau hauei jarraikiz:

a) Ezintasun gradua berrikusteko espedientea ofizioz edo interesdunak eskatuta ireki ahal izanen da, eta Nafarroako Ezintasunak Baloratzeko Epaimahai Medikoak horri buruzko proposamen loteslea egingen du.

b) Funtzionarioari deklaraturako ezintasun iraunkorraren gradua aldatu eta handiagoa emanez gero, egoera larriagotu delako edo diagnostikoaren akats baten ondorioz, berrikusteko espedientea ebatzi eta hurrengo hilabetearen lehendabiziko egunetik aurrera izanen ditu ondorioak pentsio berriak.

Kalifikazio berria diagnostikoaren akats baten ondorioa denean, espedientea ebatzi arte jasotakoaren eta ezintasun gradu altuagoa aitortuta jaso beharrekoaren arteko aldeak egiten duen zenbatekoa jasotzeko eskubidea izanen du, betiere bost urte gehienez.

c) Aurreko letretan aipatzen den berrikuspenak Foru Diputazioak 1970eko apirilaren 17an eta 1972ko azaroaren 24an hartutako Erabakietan ezarritako ondorioak izanen ditu, erabaki horiek indarra izaten jarraituko baitute foru lege honetan ezarritakoaren aurka ez doan guztian.

III. KAPITULUA Bestelako xedapenak

12. artikulua. Lanpostuak egokitzea.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio behar diren neurriak har ditzan, plantilla edo eman beharreko zerbitzuak berregituratzeagatik edukirik

gabe gelditutako lanpostuak, hutsak ez direnak, birmoldatu eta bestelakoak bihurtzeko. Eginkizun aldaketak eta lekualdatzeak, maila beraren barnekoak, salbuespen gisa baino ez dira egingen, eta Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak berak zuzenean egingen ditu.

13. artikulua. Udal funtzionarioen montepioak finantzatzea.

1. Nafarroako Gobernuak 6.432.000 euroko ekarpena egingen du, Udal Funtzionarioen Montepio Orokorren barrenean dauden Nafarroako toki entitateetako funtzionarioek sortzen dituzten pentsioak finantzatzeko.

Zenbateko hori Udal Funtzionarioen Montepio Orokorren kudeaketak 2010eko ekitaldian sortutako kostuen banaketan udal bakoitzari esleitutako kuotaren proportzio berean banatuko da.

2. Halaber, Nafarroako Gobernuak 6.660.000 euro banatuko ditu Iruña, Tuter eta Tafallako Udalen artean, haien berariazko montepioen kudeaketak 2010eko ekitaldian sortutako kostuen arabera.

3. Aurreko idatz-zatietan ezarritako zenbatekoek ez dituzte galarazten Nafarroako Administrazio Publikoen montepioetako funtzionarioen eskubide pasiboen araubide iragankorrari buruzko martxoaren 5eko 10/2003 Foru Legearen hamargarren xedapen gehigarria aplikatuta ateratzen direnak.

14. artikulua. Hauteskundeak.

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileek aparteko orduak sorrarazten ahalko dituzte, horien lansari araubidea eta eginkizunak zeinahi diren ere, baldin eta 2011n egiten diren hauteskundeak antolatzen eta garatzen parte hartzen badute, nor bere lanpostuko zeregin berekiak betetzeaz haratago sartzen duen denbora dela kausa, Nafarroako Gobernuak hartutako erabaki bidez ezartzen diren modu eta baldintzetan.

III. TITULUA Finantza eragiketak

I. KAPITULUA Abalak

15. artikulua. Abalak.

1. Nafarroako ekonomia suspertzeko 2009-2011 urteetarako neurriei buruzko azaroaren 6ko 18/2008 Foru Legean aurreikusitako kasuetan, Nafarroako Gobernuak abalak eman ahalko ditu, guztira 30.000.000 euro egingen dutenak. Abal horiek "Nafarroa abala" izena hartuko dute, eta aipatu-

tako foru legean ezartzen den eskaera epea 2011ko abenduaren 31ra arte luzatuko da.

2. Gainerako legeetan aurreikusitako kasuetan, Nafarroako Gobernuak abalak eman ahalko ditu, beste 40.000.000 euroko zenbatekoarekin, gehienez ere. Muga horren barranean, baimena ematen zaio Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari abalak emateko ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektuetarako, azaroaren 20ko 360/2000 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraikiz. Abal horien gehieneko zenbatekoa, proiektu bakoitzeko, 1.500.000 euro izanen da.

Era berean, departamentu horri baimena ematen zaio abalak emateko enpresen bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa berreskuratzeko helburua duten proiektuei, gehienez ere 1.500.000 euro proiektuko, beti ere enpresa horiek betetzen badituzte Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilariaren otsailaren 9ko 39/2010 Foru Aginduan edo horren ordezkoko arauan (Ekonomia eta Ogasun Departamentuak aldeko txostena eman beharko du) araututako laguntzak, arazoak dituzten enpresentzako direnak, jasotzeko baldintzak; eta enpresen inbertsioari laguntzeko araubideen babesean egiten diren inbertsio proiektuei.

3. Horrez gain, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, abalak eman ahalko dizkie Foru Komunitateko sozietate publikoei, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean halakotzat definiturik daudenei, gehienez ere 140.000.000 euroko zenbatekoarekin.

II. KAPITULUA Zorpetzea

16. artikulua. Zor Publikoa jaulki edo maileguak nahiz kredituak ituntzeko baimena.

1. Baimena ematen zaio Nafarroako Gobernuari zorpetze-eragiketak egiteko, muga bakarra ezarri, alegia, 2010eko abenduaren 31ko saldo bizia ez izatea 2010eko urtarrilaren 1ekoa baino 288.600.000 euro handiagoa. Horietarik 45.000.000 euro Nafarroan Abiadura Handiko Trena eraikitzeke egin beharreko lanak finantzatzeko erabiliko dira, Estatuarekin sinatutako hitzarmenaren barnean.

2. Artikulu honen lehen idatz-zatian ezarritako muga gainditu ahal izanen da hasiera batean aurreikusi gabeko finantza aktiboak eratzearen ondorioz, betiere Europako Kontuen Sistemak ezarritako irizpideak betetzen badira eta urteko zorpetze programan erabakitzen bada; hala beharko du, halaber, Nafarroako Gobernuak eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak hitzartzen dituzten

bestelako zorpetze-eragiketetan ere, Hitzarmen Ekonomikoan xedatutakoaren baitan eta aurrekontu egonkortasunaren gaineko arauak ezartzen dituzten mugak gainditu gabe.

3. Edonola ere, aurreko bi idatz-zatien ondoriozko muga gainditu ahalko du 2010eko ekitaldia arte hitzartutako eta erabili gabe geratu den zorpetzearen zenbatekoak.

4. Aurreko idatz-zatietan jasotako zorpetze-eragiketen emisioa eta, kasua bada, formalizazioa, eragiketa batean edo batzuetan gauzatu ahalko dira, eta 2011ko ekitaldia baino geroagorako luzatu ahalko dira.

5. Nafarroako Gobernuak, hiru hilabete behin, aurreko idatz-zatietan aurreikusitako zorpetze operazio guztien jaulkitzearen edo formalizazioaren berri emanen dio Nafarroako Parlamentuari.

17. artikulua. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoen sektoreko gainerako entitateen zorpetzea.

1. Europako Kontuen Sistemaren arabera Nafarroako Foru Komunitateko Administrazio Publikoen sektorean sartutako entitateek Ekonomia eta Ogasun Departamentuaren baimena beharko dute haien zorpetze eragiketak formalizatu aurretik, eta baimen hori gabe hartutako erabakiak erabat deusezak izanen dira.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuak zorpetze eragiketa horiek baimendu izanaren berri emanen dio, hiru hilabete behin, Nafarroako Parlamentuari.

2. Aurreko idatz-zatiko entitateei baimenduko zaien gehieneko zorpetze bolumenak ez ditu gaindituko Nafarroako Gobernuaren eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak aurrekontuen egonkortasunaren barruan erabakitako mugak.

3. Artikulu honen 1. idatz-zatian aipatzen diren entitateetako arduradunek Ekonomia eta Ogasun Departamentuak eskatzen dien informazioa eman beharko dute, behar den moduan eta epean, Nafarroako Gobernuak eta Ekonomia eta Ogasun Ministerioak aurrekontuen egonkortasunaren esparruan hartutako konpromisoak betetzeko.

IV. TITULUA Toki entitateak

18. artikulua. Elkarte tradizionalen inbertsioetarako dirulaguntzak eta onurak.

Errege Bardeako Komunitateak eta Erronkariako, Zaraitzuko eta Aezkoako Batzarrek Nafarroako Aurrekontu Orokorretan Nafarroako Ogasun Publi-

koaren kargura ezarritako diru-ekarpenak eta gainerako onurak jaso ahal izanzen dituzte, beren organo eskudunek onesten dituzten inbertsioetarako.

19. artikulua. Nafarroako hiri hondakin solidoak tratatzeko partzuergoa.

“Hondakinen tratamendurako partzuergoa: funtzionamendurako laguntza” izeneko 211002-21400-4609-456200 kontu-sailak eta “Hondakinen tratamendurako partzuergoa edo partzuergoan bildutako entitateak: ezarpena” izeneko 211002-21400-7609-456200 kontu-sailak finantzatzeko dituzte horretarako behar diren jarduketak, partzuergoko kideentzat.

V. TITULUA

Aurrekontuen kudeaketa

20. artikulua. Nafarroako Parlamentuaren, Comptos Ganberaren eta Arartekoaren aurrekontuen zuzkidurak.

Nafarroako Parlamentuaren, Comptos Ganberaren eta Arartekoaren aurrekontuen zuzkidurak kasuko Mahaiak, lehendakariak edo Arartekoak eskatu ahala gauzatzeko dira, irmoki eta aldizka.

21. artikulua. Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua.

Foru Komunitateko Administrazioaren ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketari buruzko araudi orokorraren mendean egonen da Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua, bere independentzia organikoa eta funtzionala galarazi gabe.

Halaber, haren jarduketa ekonomikoa eta aurrekontuena Nafarroako Gobernuaren Kontuhartzailtza Orokorraren kontrolpean egonen dira, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioarentzat eta haren erakunde autonomoentzat ezarritako dagoen modu berean.

Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilurako transferentzia arruntak, oro har, hiru hilabeteko aurrerapenarekin libratuko dira, behar handiagoak justifikatzen ez badira, behintzat.

Kapital transferentziak lehendakariak eskatzen dituen neurrian libratuko dira, haiek eskatzea eragin duen gastuaren beharra justifikatuta.

22. artikulua. Europar Batasuneko programen aurrekontuetako aldaketak.

1. Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposaturik, eta Nazioarteko Garapenerako zuzendari nagusiak txostena egin ondoren, aurrekontuetan behar diren aldaketak egiteko baimena eman ahal du, ekitaldian zehar

Europar Batasunak kofinantzatutako programa eta proiektuak ahalik eta hobekien betetzeko, Europako Batzordeak hasierako dokumentuan onetsitakoari edo ondoren jarraipen batzordeek edo Batzordeak berak eginiko aldaketei jarraituz. Aurrekontu aldaketa horiek gastuen egoera-orrietan agertzen diren edozein motatako kredituen bidez finantzatu beharko dira.

Dena dela, aurreko leerroaldean xedatutakoa ez da aplikatuko Landa Garapenerako eta Ingurumenerako Departamentuak kudeatutako Nafarroako Landa Garapenerako Programan.

2. Europar Batasunak kofinantzatzen dituen proiektuak biltzen dituzten kontu-sailetan eragin zuzena duen kreditu aldaketa oro egiteko Nazioarteko Garapenerako Zuzendaritza Nagusiaren txostena beharko da alde zuzenetik.

23. artikulua. Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak.

Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariaren ohiko jardunerako behar diren gastu guztiak kutxa finkoko aurrerakinekin edo, hala bada, justifikatu beharreko ordain-aginduekin ordainduko dira.

Nafarroako Gobernuak Bruselan duen ordezkariak arestian esandako gastu eta ordainketak baimendu ahalko ditu, eta Nazioarteko Garapenerako zuzendari nagusiaren alde aurreko baimena beharko du 12.000 euro baino gehiagokoak direnean.

24. artikulua. 310. programan jasotako fundazioak.

“Lurralde plangintza eta hirigintza planeamendua” 310. programako fundazioen kontu-sailei sozietatearen xedea kudeatu eta betetzearekin lotutako gastu guztiak, edozein motatakoak, aplikatu ahalko zaizkie.

25. artikulua. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aurrekontu zuzkidura.

“NUPen finantzaketa: Iruñeko eta Tuterako Campusa” izeneko 431000-43100-4455-322300 kontu-sailak epigrafe hauek ditu:

a) Irakasleen ordainsari osagarriari aurre egiteko transferentzia arruntak, gehienez ere 2.854.250 eurokoak, bi epetan egingen dira, Unibertsitateko Kudeatzaileak justifikatu ondoren. Gastuaren betetzea frogatzen duen dokumentazioa erantsi beharko da, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Kontuhartzailak onartatuta.

b) Tuteran ikasketa presentzialak ezartzeko transferentzia arruntak, 2.120.000 eurokoak, Hez-

kuntza Departamentuaren eta Unibertsitatearen beraren artean adostuak, Unibertsitateko Kudeatzaitzak justifikatu ondoren eginen dira. Gastuaren betetzea frogatzen duen dokumentazioa erantsi beharko da, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Kontu-hartzaileak ontzat emana.

c) Gainerako transferentzia arruntak irakaskuntzaren eta ikerketaren finantzaketarako erabiliko dira eta, oro har, hiru hilabeteko aurrerapenarekin libratuko dira.

a) eta b) letretako zenbateko batzuk ezin badiara bete Nafarroako Unibertsitate Publikoak gastuak justifikatu ez dituelako, Hezkuntza Departamentuaren eta Unibertsitatearen beraren artean adostutako irakaskuntza eta ikerketa proiektuak finantzatzeko erabili ahalko dira, Kudeatzaitzak eskaera egin eta gero.

Eliteko kirol taldeek Unibertsitateko kirol instalazioak 2010eko abenduaren 31 arte erabiltzearen ondorioz sortutako zorra barkatzeko finantzazioa c) letrako transferentzia arruntan zenbatekoan sartuko da.

Nafarroako Unibertsitate Publikoaren aldeko kapital transferentziak, Iruñeko eta Tuterako inbertsioak finantzatzeko direnak, Kudeatzaitzak eskatu eta gero eginen dira. Gastuaren betetzea frogatzen duen dokumentazioa erantsi beharko da, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Kontu-hartzaileak ontzat emana.

Kapital transferentziek finantzaturako inbertsio proiektuak Hezkuntza Departamentuak onetsiko ditu, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta Nafarroako Gobernuaren interesekoak diren proiektuen artean.

Hezkuntza Departamentuak "NUPen finantzaketa: Iruñeko eta Tuterako campusak" izeneko 431000-43100-4455-322300 kontu-sailean konprometitutako zenbatekoa doituko du, Estatuko eta autonomia erkidegoko araudi berrietatik eratortzen diren ondorio ekonomikoekin bat eta diruzaintzako soberakinik badago. Kasu horretan, kontu-sail horri ez zaio aplikatuko Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 50. artikuluan ezarritakoa.

26. artikulua. Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren ikastetxe elkartuen aurrekontu zuzkidura.

UHUNeko Iruñeko eta Tuterako ikastetxe elkartuen finantzaketarako transferentzia arruntak, oro har, hiru hilabeteko aurrerapenarekin libratuko dira.

27. artikulua. Ikasliburuak doan jasotzeko programaren kudeaketa.

Funts mugimenduak egin ahalko dira bi kontu-sail hauen artean: 410002-41150-6081-321100 kontu-saila, "Ikasliburuak doan jasotzeko plana" izenekoa, eta 410002-41150-7811-321100 kontu-saila, "Ikasliburuak doan jasotzeko programa" izenekoa. Mugimendu horiek ez dituzte Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean ezarritako mugak izanen, 38. artikuluan eta 44. artikulutik 50. artikulura bitartean ezarritakoak hain zuzen.

Hezkuntza Departamentuko titularrak izanen du funts mugimendu horiek baimentzeko eskumena.

28. artikulua. Diruz lagundutako eta itundutako ikastetxeak mantentzea.

1. Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 117. artikuluan ezarritakoaren arabera, eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomikoaren diru-kopurua hamabigarren xedapen gehigarrian ezarritakoa izanen da 2011. urterako, diruz lagundutako eta itundutako ikastetxeak mantentzeko funts publikoen zenbateko osoa banatzeari dagokionez.

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, irakaskuntza itunduko sektorearekin negoziatu ondoren, hamabigarren xedapen gehigarriko modulu ekonomikoak eta artikulua honetako bosgarren idatz-zatiko zenbatekoa aldatzeko, 2011-2012 ikasturteko lehen hiruhilekorako.

Ahalmena ematen zaio Nafarroako Gobernuari, Ekonomia eta Ogasun Departamentuak aldeko txostena eman ondoren, hamabigarren xedapen gehigarriko modulu ekonomikoak eta artikulua honetako bosgarren idatz-zatiko zenbatekoa aldatzeko, bai eta dagozkion funts mugimenduak egiteko ere, irakaskuntza itunduaren sektorean hezkuntzaren kalitatea eta lan baldintzak hobetuz joateko akordioa betetzeko beharrezkoa bada. Funts mugimendu horiek ez dituzte Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean ezarritako mugak izanen, 38. artikuluan eta 44. artikulutik 50. artikulura bitartean ezarritakoak hain zuzen.

Irakasleen ordainsariei buruzko aurreikuspenek, hamabigarren xedapen gehigarrian jasotakoek, 2011ko urtarrilaren 1etik hasita izanen dute indarra, irakaskuntza pribatuaren hitzarmen kolektiboak sinatzen diren datak horretan eraginik izan gabe. Administrazioak konturako ordainketak onartu ahalko ditu ugazaben erakunde guztiek espresuki horrela eskatu ondoren eta sindikatuak ent-

zun ondoren, kasuan kasuko hitzarmena izenpetu arte. Konturako ordainketa horiek 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dute eragina.

“Bestelako gastuetara” zuzendutako moduluak eta, hala balitz, “langile osagarri” zuzendutakoak –hamabigarren xedapen gehigarrian jasotakoak– 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen dute eragina.

Irakasleen soldatetarako ezartzen diren zenbatekoak, gizarte-prestazioen kargak barne, administrazioak ordainduko ditu zuzenean ordainketa delegatuaren bidez, irakasleen eta dagokien ikastetxeko titularraren arteko lan harremana galarazi gabe.

“Bestelako gastuak” moduluari dagozkion zenbatekoak ikastetxe itunduei ordainduko zaizkie, eta horiek ikasturtea bukatzean justifikatu beharko dute aplikatu direla.

“Gastu aldakorrak” osatzen dituzten zenbatekoen banaketa itunen araubideari buruzko xedapenetan ezarritakoaren arabera eginen da.

2. Egun, Nafarroan irakasten ez direnez berarizko lanbide heziketako titulu guztiak, Hezkuntza Departamentuak behin-behinekoz finkatuko ditu 2011-2012 ikasturtean lehenengo aldiz ezarriko diren eta hamabigarren xedapen gehigarrian sarturik ez dauden erdi edo goi mailako heziketa ziklo eta hastapeneko lanbide kualifikazioko programe-tako modulu ekonomikoak, eta aipaturiko xedapen gehigarri horretan sartutakoak behin-behinekoz aldatu ahal izanen ditu, 2011-2012 ikasturtearen hasierako ondorioekin, haien ezarpena zein den ikusita.

3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehen eta bigarren zikloa, Batxilergoa, Goi Mailako edo Erdi Mailako Heziketa Zikloak eta Gizarte Garantiako Programak ezarri dituzten ikastetxeei Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 2.2 artikulua aipatzen dituen hezkuntzako, psikopedagogiako eta lanbide orientazioko zerbitzu espezializatuarentako finantzaketa emanen zaie. Proporzio honetan eginen da: eginkizun horietan aritzeko gai den profesionalaren lanegun oso bat, aipatu hezkuntza maila horietako 25 unitate itunduko. Hortaz, ikastetxe itunduek eskubidea izanen dute aipatu profesionalaren lanegun horren finantzaketa jasotzeko, maila horretan itunduta daukaten unitate kopuruaren arabera.

4. Goi Mailako Heziketa Zikloetako itun berezia partziala izanen da; hortaz, Goi Mailako Heziketa Zikloetako derrigorrezko irakaskuntzakoa ez den mailarako izenpetzen diren itun berezi partzialen araubideari esleitutako funts publikoetatik datorren

finantzaketaren finantzaketa osagarriaren kontzeptuan ikasleengandik jasotzekoa den kopurua, irakaskuntza arautuko kontzeptuan soilik, hileko 37,42 eurokoa izanen da ikasleko, eta hamar hilabetez emanen da, 2011ko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era arte, eta urte bereko irailaren 1etik abenduaren 31ra bitarte. Salbuetsirik daude Lantokietako Lanbide Heziketa baizik ez duen ikastaroan matrikulaturiko ikasleak. Horiek 32,45 euro ordainduko dute ikasle eta hileko, 2011-2012 ikasturteko Lantokietako Lanbide Heziketak irauten duen hiru hiletan.

Goi Mailako Heziketa Zikloetan sartu ahal izateko prestakuntza ikastarorako itun berezia partziala izanen da; hortaz, Goi Mailako Heziketa Zikloetan sartzeko derrigorrezko irakaskuntzakoa ez den prestakuntza ikastarorako izenpetzen diren itun berezi partzialen araubideari esleitutako funts publikoetatik datorren finantzaketaren finantzaketa osagarriaren kontzeptuan ikasleengandik jasotzekoa den kopurua, irakaskuntza arautuko kontzeptuan soilik, hileko 26,53 eurokoa izanen da eta hamar hilabetez emanen da, 2011ko urtarrilaren 1etik urte bereko ekainaren 30era arte, eta urte bereko irailaren 1etik abenduaren 31ra bitarte.

Ikastetxeek ikasleei diru kopuru horiek kobratzearen ondorioz eskuratzen duten finantzaketa erabiliko da modulu ekonomikoko “Bestelako gastuak” deitutako kapitulurako eta, beraz, administrazioak “bestelako gastuak” delako atalaren kopurua osatzeko falta den kopurua baizik ez du ordainduko.

5. Zuzendaritzako eginkizunetan laguntzeko, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren hogeita zazpigarren xedapen gehigarrian xedaturikoarekin bat, finantzaketa baten beharra dago. Hori dela-eta, hezkuntza maila eta modalitate guztietako eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomiko guztiek (foru lege honen hamabigarren xedapen gehigarrian finkatuak), lantokietako prestakuntza soileko unitateak izan ezik, “Bestelako gastuak” kontzeptuan 787,26 euroko kopurua daukate urtean, zuzendaritza eta/edo pedagogiako eginkizunetako beste kargu batzuk finantzatzeko. Hori dena zuzendaritzako osagarriaz gain, “Gastu aldakorrak” izeneko atalean sarturik baitago.

6. Haur Hezkuntzan eta Derrigorrezko Hezkuntzetan hezkuntza premia bereziak dituzten edo sozialki nahiz kulturalki kaltetutako egoeran dauden ikasleak dituzten ikastetxe itunduek bestelako giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak izanen dituzte: ikasle horien laguntza irakasleak, logopedia zerbitzuak eta zaindariak edo bestelako pertsonal osagarria.

Baliabide horiek esleituko dira beharrezkoak diren txosten teknikoak izanik, Hezkuntza Departamentuak onetsiriko deialdi publikoa egin ondoren.

29. artikulua. Hezkuntza Departamentuak 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eskolatzeko udalekin dituen hitzarmenen kredituak kudeatzea.

Funts mugimenduak egin ahalko dira kontu-sail hauen artean: 422000-42140-4609-322100 kontu-saila, "Udalekin hitzarmenak, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eskolatzeko" izenekoa, eta 422000-42140-7609-322100 kontu-saila, "Udalekin hitzarmenak, 0 eta 3 urte bitarteko haurrak eskolatzeko. Ekipamendua eta berriztapena" izenekoa. Mugimendu horiek ez dituzte izanen Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean ezarritako mugak; zehazki, 38. artikuluan eta 44. artikulutik 50. artikulura bitartean -biak barne- ezarritakoak, hain zuzen.

Hezkuntza Departamentuko titularrak izanen du funts mugimendu horiek baimentzeko eskumena.

30. artikulua. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak diruz lagundutako eskola jantokietan zerbitzuak ematen dituzten irakaskuntzako langileen diru-konpentsazioak.

1. Derrigorrezko irakaskuntza mailetan Nafarroako ikastetxe publiko ez-unibertsitarioetako eskolako jantokiak arautzen dituen uztailaren 24ko 246/1991 Foru Dekretuan eta dekretu horretan xedatutakoa garatzeko Hezkuntza eta Kultura kontseilariak maiatzaren 11n emaniko 186/1993 Foru Aginduan xedatutakoari jarraikiz, jantokiko administratzaile, arduradun edo zaintzaile lanetan aritzen diren irakasleek honako ordainsari gordin hauek jasoko dituzte zeregin horretan egiaz emandako egun bakoitzeko:

Bazkaltiarren kopurua	Jantokiko arduraduna	Administratzailea	Zaintzaile bakoitza
0-80	16,63 euro	14,71 euro	16,63 euro
81-160	18,58 euro	14,71 euro	16,63 euro
161-240	19,92 euro	16,48 euro	16,63 euro
+240	20,61 euro	18,88 euro	16,63 euro

2. 40 bazkaltiar arteko jantokietan, jantokiko arduradunaren eta administratzailearen eginkizunak pertsona berak beteko ditu, eta eginkizun horietako bakar batengatik jasoko ditu bere ordainsariak.

31. artikulua. Herrietako kontsultategientzako dirulaguntzak.

547000 zenbakiko proiektuan jasota dagoen “Oinarrizko osasun laguntzako zentroak eraiki eta zaharberritzeko transferentziak” kontu-saileko kredituekin –herrietako osasun etxeak eraiki eta moldatzeko baita– horrelako gastuetarako ehuneko 100eko dirulaguntza emanen da, baina dirulaguntza horiek emateko deialdian Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak onetsiko dituen oinarri arautzaileetan ezarriko dituen baldintzak eta mugak gainditu gabe betiere.

Herrietako kontsultategien ekipamenduaz Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzua bera arduratuko da zuzenean.

32. artikulua. Ikerketa proiektuak.

Osasun Departamentuak sustaturiko osasun zientzien arloko ikerketa proiektuak haren inbertsio berekizatutako dira, eta ez zaie aplikatuko Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legea.

Aipaturiko proiektuak deialdi publikoaren ondorioz horretarako eskaera egiten dutenen arteko hautatuko dira, batzorde tekniko batek proposaturik. Batzorde horren osaketa aipaturiko deialdian zehaztuko da.

33. artikulua. Kreditu zabalgarrien kudeaketa Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren barnean.

Funts mugimenduak egin ahalko dira foru lege honen 4.6.a) artikuluan zabalgarritzat aitortutako eta 54. programa multzoan sartutako kontu-sailen artean, programa bakoitzaren barnean eta Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38.2 artikuluan ezarritako lotura mailaren barnean. Mugimendu horiek ez dute izan Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 38.2.a), 44.b), 47.2 eta 47.3 eta 50.2 artikuluetan ezarritako muga.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak izanen du funts mugimendu horiek baimentzeko eskumena.

34. artikulua. Organo transplanteak sustatzea.

Azken zenbatekoa, ospitaleetan jasotzen dena, organo transplanteen sustapena egiteko bada, erabili ahalko da bai ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuetan bai ondasun inbertuariarri-

etako gastuetan ere, jasotako diru horren xedearekin zerikusia baldin badute betiere.

35. artikulua. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren aurrekontuak aldatzea.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren esparruan, bertako zuzendari kudeatzaileak baimena eman ahal du Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 45.1 artikuluan aipatzen diren aurrekontu aldaketak egiteko.

36. artikulua. Sindikatuak eta enpresaburuen elkarteak.

Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren aurrekontuan sindikatuentzat esleitutako gastua banatzeko, bakoitzak Foru Komunitatean duen ordezkari mailari jarraituko zaio, eta horretarako 2007ko urtarrilaren 1etik 2010eko abenduaren 31ra bitartean egindako hauteskundeetako eta boto-kontaktetako aktetan adierazitako emaitzak hartuko dira kontuan; azken data horretan ordezkari aginte indarduna izan beharko dute.

“Nafarroako Ekonomia eta Gizarte Kontseiluan parte hartzeagatik bertan dauden sindikatuak, gizarte ekonomiako elkarteak eta enpresaburuen elkarteak egin beharreko ordainketa” izeneko kontu-saila erakunde horien artean banatuko da, bakoitzak Kontseiluan dituen kideen kopuruaren proportzioan.

“Sindikatuaren hauteskunde prozesua jarraitzeko batzordea osatzen duten sindikatuak bertan parte hartzeagatik egin beharreko ordainketa” izeneko kontu-saila urriaren 3ko 182/1994 Foru Dekretuaren bidez sorturiko batzorde horretan parte hartzen duten sindikatuaren artean banatuko da, bertan dituzten kideen kopuruaren proportzioan.

“Gizarte ekonomiako entitateak sustatu eta mantentzea. ANEL” izeneko kontu-saila Nafarroako Lan Enpresen Elkarte (ANEL) izenekoaren azpiegitura eta mantentze-lanen gastuak ordaintzeko erabiliko da, gizarte ekonomia bultzatu, garatu, sustatu eta indartzeko xedea bete dezan.

“Enplegu planak prestatzeko eta horien jarraipena egiteko batzordea osatzen dutenei bertan parte hartzeagatik egin beharreko ordainketa” izeneko kontu-saila zati berdinetan banatuko da batzorde hori osatzen duten sindikatuak eta enpresaburuen elkarten artean.

“INAFREri enplegurako prestakuntzaren plan-gintzan parte hartzeagatik egin beharreko ordainketa” izeneko kontu-saila zati berdinetan banatuko da fundazio hori osatzen duten sindikatuak eta enpresaburuen elkarten artean.

37. artikulua. Gastu konpromisoak hurrengo aurrekontuen kontura.

1. Nafarroako Gobernuak zenbait urtetarako gastu konpromisoak hartzeko baimena eman ahalko du, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak baimentzen dituenaz gain, sustatzaileei etxebizitza babestuek eraikitzeko dirulaguntzak emateko, betiere aipatutako konpromisoek ez badituzte aurreko ekitaldian helburu horretarako emandako zenbatekoak gainditzen.

2. Nafarroako Gobernuak zenbait urtetarako gastu konpromisoak hartzeko baimena eman ahalko du, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak 40. artikuluko 2. eta 3. idatz-zatietan baimentzen dituenaz gain, herri lanen eta zerbitzuen emakidarako kontratuak egiteko eta ondasun higiezinak errentan hartzeko. Artikulu horren 2. eta 3. idatz-zatietan baimentzen diren mugak gainditzen dituzten zenbait urtetarako konpromisoak hartzeko baimena eman ahalko du, Nafarroa 2012 Planeko proiektuak egiteko.

3. Nafarroako Gobernuak hurrengo ekitaldiara luzatuko diren gastu konpromisoak hartzeko baimena eman ahalko du, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak baimentzen dituenaz gain, Europar Batasunak eta/edo Estatuko Administrazio Orokorrek kofinantzatzen dituzten planei, programei eta ekimenei aurre egiteko, bai eta haiek sortutako bete-beharrei aurre egiteko ere, hiru urtetik goitiko plan-gintza behar badute.

4. Nafarroako Gobernuak ekitaldi bakoitzean finkatzen dituen mugen barnean, Hezkuntza Departamentuak hurrengo ekitaldiara luzatuko diren gastu konpromisoak hartu ahalko ditu, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak baimentzen dituenaz gain, Tuterako Udalaren eta Hezkuntza Departamentuaren arteko hitzarmena betetzeko. Hitzarmen horren bitartez, Tuterako “Fernando Remacha” udal musika kontserbatorioko lanbide ikasketetarako laguntza ekonomikoa ezartzen da.

5. Hezkuntza Departamentuak, hurrengo ekitaldiko aurrekontuaren kargura gastu konpromisoak hartuta, bekak eta laguntzak eman, eskola garraioa eta eskola jantokien zerbitzua kontratatu ahalko ditu, betiere konpromiso horiek aurrekontuko ekitaldia ez den urteko aldi bati badagozkio, ikasturtearen beharrei erantzunez.

6. Nafarroako Gobernuak baimena eman ahalko du hurrengo ekitaldiara luzatuko diren gastu konpromisoak hartzeko –Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru

Legeak baimentzen dituenaz gain–, enpresek I+G+B proiektuak finantzatzeko eta zentro teknologikoei eta azpiegitura zientifiko eta teknologiko bereziei dirulaguntzak emateko hitzartzen dituzten kreditu edo maileguen interesetan hobariak emate aldera, laguntza gisa.

7. Nafarroako Gobernuak ekitaldirako ezartzen dituen mugen barnean, Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak hurrengo ekitaldiara luzatuko diren gastu konpromisoak hartu ahalko ditu, Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeak baimentzen dituenaz gain, mendekotasuna duten pertsonak familia inguruan zaintzeko laguntzak geroratzeko, maiatzaren 20ko 8/2010 Errege Lege Dekretuan aurreikusten den moduan. Horren bidez, neurri bereziak hartu ziren defizit publikoa murrizteko. Geroratzek ez du berandutza-interesik edo legezkorik sortuko.

38. artikulua. Gizarte Zerbitzuen Zorroak mendekotasunaren, desgaitasunaren eta gaixotasun mentalaren arretarako bermatzen dituen prestazioetara zuzendutako kredituen kudeaketa.

Funts mugimenduak egin ahalko dira “Zaharrentzako zentroen kudeaketa” izeneko 920004-91820-2279-231400 kontu-sailaren eta ondoko kontu-sail hauen artean:

“Zaharrentzako zentroen kudeaketa” izeneko 920004-91820-2279-231400 kontu-saila.

“Desgaitasuna duten pertsonen zentroen kudeaketa” izeneko 920004-91820-2279-231300 kontu-saila.

“Gaixotasun mentaleko zentroen kudeaketa” izeneko 920004-91820-2279-231303 kontu-saila.

Mugimendu horiek ez dituzte Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean ezarritako mugak izanen, 38. artikuluan eta 44. artikulutik 50. artikulura bitartean ezarritakoak, hain zuzen.

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuko titularrak izanen du funts mugimendu horiek baimentzeko eskumena.

39. artikulua. Onura fiskaletarako kontu-sailak.

Jarraian aipatzen diren kontu-sailak zertarako onartu diren, hartarako baizik ezin dira erabili, hots, haiei loturiko onura fiskala biltzeko: “Etxebizitza-errentamenduen zerga-gastuak”, “Ohiko etxebizitzarako inbertsioaren zerga-gastuak”, “Enplegu sorreraren zerga-gastuak”, “Inbertsioen zerga-gastuak”, “I+G+Bko inbertsioen zerga-gastuak”, “Alargun-pentsioengatiko kenkarietatik sorturiko zerga-gastuak”, “Zaintzaileen kotizazioengatiko

kenkarietatik sorturiko zerga-gastuak”, “Aurreikuspen sozialeko sistemetarako ekarpenengatik zerga-gastuak” eta “Interes kulturalako ondasunetako inbertsioen zerga-gastuak”. Ez dira gutxituko, ez aurrekontu-doiketagatik ere, beste inolako xederik finantzatzeko.

40. artikulua. Nafarroa 2012 Planerako eta krisiaren aurkako neurrietarako inbertsioetarako kontu-sailak.

1. Funts mugimenduak egin ahalko dira Nafarroa 2012 Plana finantzatzeko kontu-sailen artean eta krisiaren aurkako neurriak finantzatzeko artean edo bi kasuetan sortu beharrekoen artean, eta mugimendu horiek ez dituzte Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean ezarritako mugak izanen, 38. artikuluan eta 44. artikulutik 50. artikulura bitartean ezarritakoak hain zuzen.

2. Aurreko idatz-zatiko kontu-sailak ez dira gutxituko ez eta aldatuko ere, non ez duen horretarako baimena ematen Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak.

3. Aurreko idatz-zatiaren salbuespen gisa, 2011. ikasturtean, Hezkuntza Departamentuko Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak baimena eman ahalko du funts mugimenduak egiteko Nafarroa 2012 Planaren barnean ikastetxeak eta bigarren hezkuntzako institutuak eraiki eta hornitzera zuzendutako kontu-sailen artean.

41. artikulua. Moderna Planerako aurrekontuko kontu-sailak.

Moderna Plana abian jartzearekin batera, kontu-sail berriak sortu ahalko dira plana garatzeko. Kontu-sail horiek “Moderna Plana. Nafarroako eredu ekonomiko berria” izeneko 141001-16100-2276-931102 kontu-sailaren eta “Moderna Planaren garapenerako transferentziak” izeneko 141001-16100-4819-931102 kontu-sailaren kargura finantzatzeko dira. Mugimendu horiek, ez eta kontu-sailen artekoek ere, ez dituzte Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legean ezarritako mugak izanen, 38. artikuluan eta 44. artikulutik 50. artikulura bitartean ezarritakoak, hain zuzen.

Ekonomia eta Ogasun Departamentuko titularrak izanen du funts mugimendu horiek baimentzeko eskumena.

42. artikulua. Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoa.

Estatuarekiko Hitzarmen Ekonomikoaren 2010eko negoziazioaren esparruan, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilari-

ak proposatuta, aurrekontuko gainontzeko kredituak doitu ahalko ditu, hitzarmen horren aurrekontu-betetzeari estaldura emateko, eta ez dira aplikatzekoak izanen Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 38. artikuluan nahiz 44. artikulutik 50. artikulura bitartekoetan –bi horiek ere barne– ezarritako mugak.

VI. TITULUA Kontratazioa

43. artikulua. Kontratazioaren arloko eskudantziak.

Garraio zerbitzuak kontratatuzeko eta garraio jarduerak xede dituzten dirulaguntzak emateko, Herri Lan, Garraio eta Komunikazio Departamentuko Garraio Zuzendaritza Nagusiak aldeko txostena eman beharko du aurretik, derrigorrez.

44. artikulua. Erakunde autonomo jakin batzuetako hornidura kontratuak.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuen mendeko zentroek produktu freskoak erosi ahalko dituzte, hornitzaileei eskaintzak eskatuz hamabostean behin, urteko esleipenera jo beharrik gabe.

2. Nafarroako Mendekotasun Agentziak produktu freskoak erosi ahalko ditu, bere mendeko zentroetarako hornitzaileei bi hilean behin, hiru hilean behin edo lau hilean behin eskaintzak eskatuz, urteko esleipenera jo beharrik gabe.

45. artikulua. Lurzoruaren udal ondarea besterentzetik lortutako diru-sarrerak.

Nafarroako udalek udal ondarea besterentzearen bidez eta Administrazioari zegokion aprobetxamendua eskudirutara bihurtzearen bidez lortutako diru-sarrerak direla-eta erabilgarri dutenaren 100eko 15era bitarte baliatu ahalko dute hiru urteko epean gizarte-intereseko erabilerekin lotutako gastu arruntak finantzatzeko, eta, kontzeptu hori dela-eta baliatutakoa gehienez ere 10 urteko epean itzuli beharko dute, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 227. artikuluan ezarritakoaren arabera erabil dadin.

Lehen xedapen gehigarria. Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren artikulua batzuk aldatzea eta xedapen berriak gehitzea.

Bat. Aldatu egin da abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen zer-

bitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren 34. artikulua. Honela gelditu da:

“1. Erregelamendu bidez zehaztuko da zein diren, horiek eskatzen duten erantzukizun eta konfiantza berezia dela-eta, funtzionarioen artean bete beharreko izendapen libreko lanpostuak. Behar den izendapena egin behar duen organoak zuzenean beteko ditu lanpostu horiek. Zuzendaritza lanpostuetan izan ezik, deialdi publikoa eginen da, organo eskudunak balora dezan izangaiak lanpostuan aritzeko egokiak diren.

2. Aurreko idatz-zatian aipatutako lanpostuetan aritzeko funtzionarioak organo eskudun berak izendatu eta kargutik kenduko ditu; hori gertatzen bada, lanpostuari dagozkion osagarriak jasotzeari utziko diote eta jatorrizko atxikipen esparruan zuten maila eta lanpostuari zegozkien zereginetara itzuli beharko dute berehala.

Salbuespen gisa, funtzionarioen artean bete beharreko izendapen libreko lanpostutik kendutako funtzionarioek hala eskatuta, beste atxikipen esparru batean sartu ahal izanen dira, betiere zerbitzuko beharrek horretarako aukera ematen badute.

3. Ez bada zehazten zein den atxikipen esparrua dagokion administrazio publikoan, jatorrizko lanpostura itzuliko dira.”

Bi. Aldatu egin dira abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginaren zazpigarren xedapen gehigarriaren 1. eta 5. idatz-zatiak. Honela gelditu dira:

“1. Nafarroako Administrazio Publikoetako lan publikoaren eskaintzetan lanpostu hutsen %5 gutxienez gorde eginen da %33ko desgaitasuna edo handiagoa duten pertsonentzat, betiere hauptapen probak gainditzeko badituzte eta, dagokion unean, aipatutako desgaitasun gradua eta bete beharreko lanarekin eta eginkizunekin bateragarria dela frogatzen badute.

Pertsona horiek betetako lanpostuek deitutako lanpostuen %3 ez badute egiten, ehuneko horretara bitarte bete gabeko lanpostuen kopurua hurrengo lan eskaintzaren kupoari gehituko zaio, %10 gehieneko muga izanik.

5. Desgaitasuna duten pertsonentzako txandarako 1. idatz-zatian ezarri den lanpostu kopurutik %25 gorde ahal izanen da, gehienez ere, mugako adimen-gaitasuna duten pertsonen edo atzerapen mental arina edo moderatua dutenek betetzeko, betiere %33ko desgaitasuna edo handiagoa dutela frogatzen badute. Erreserba berezi hau ezartzeko, desgaitasun mota hau duten pertsonen ezaugarri-

etarako egokiak diren lanpostu hutsak egon beharko dira lan publikoaren eskaintzan.

Sartzeko prozedurak eta idatz-zati honetan aipatzen diren lanpostuak betetzeko prozedurak deialdi bereizien bitartez egiten dira, eta txanda ezberdinak ezarriko dira, mugako adimen-gaitasuna duten pertsonentzako batetik, eta atzerapen mental arin edo moderatua frogatzen duten pertsonentzat bestetik. Proben bidez, gehien bat, izangaiak lanpostuari dagozkion eginkizunetan aritzeko jokabide oinarritzaileak eta ezinbesteko eza-gutzak dituztela egiaztatuko da.”

Hiru. Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginari hemeretzigarren xedapen gehigarria gehitu zaio. Hauxe da:

“1. Funtzionario gisa lanpostuaz jabetzea edo langile finko gisa kontratua sinatzea geroratu da izangai amatasun edo adopzio lizentziarako ezarritako aldiaren badago.

2. Lanpostuaz jabetzeko edo kontratua sinatzeko epea zenbatzen hasiko da amatasun edo adopzio lizentziari dagokion aldia bukatzen denetik hasita, edo lehenago, baldin eta interesdunak hala eskatzen badu. Nolanahi ere, amarentzat erditu ondoren ezarritako derrigorrezko atsedenaldira errespetatuko da.

3. Kasu horietan, dagokion administrazioan emandako zerbitzu gisa aitortuko da lanpostuaz jabetzeko edo kontratua sinatzeko gerorapen epe hori. Funtzionario gisa lanpostuaz jabetzeak edo langile finko gisa kontratua sinatzeak baldintzatuko dute aitorten hori, eta horiek gertatzen direnetik hasita izanen ditu ondorioak.

4. Aurreko idatz-zatietan ezarritakoa aintzat hartuko da aldi baterako kontratazioak egiteko deialdietan, kontratazio horren berariazko ezaugarriek eragindako egokitzapenekin.”

Lau. Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsiriko Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bateginari hogeigarren xedapen gehigarria gehitu zaio. Hauxe da:

“Urtebeteko epean preskribatuko du funtzionarioen araubideko edo administrazio araubideko kontratu harremanaren ondorioz sortutako eduki ekonomikoko edozein betebeharren aitortpena edo likidazioa Nafarroako Administrazio Publikoari eskatzeko eskubideak.”

Bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen aldaketa.

Bat. Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 44. artikuluko 3. idatz-zatia aldatu da. Honela gelditu da:

“3. Langile gastuen kapituluaren barnean, Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak zilegi izanen du aurrekontuko mugimenduak baimentzea, baldin eta lekualdatzeengatik, lanpostuak betetzeagatik, plantilla aldatzeagatik eta egoera administratiboetan edo ordainsarrietan izandako aldaketengatik sortuak badira. Aurrekontuko mugimendu horiek ez dira, foru lege honen ondorioetarako, kreditu transferentziatzat hartuko.”

Bi. Honako bi idatz-zati hauek gehitu zaizkio Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen 45. artikuluari:

“4. Lehendakaritza, Justizia eta Barneko kontseilariak transferentziak egiteko baimena eman ahalko du I. kapituluko kredituen artean, hots, departamentu bereko programei dagozkien kredituen artean edo departamentu desberdinen programei dagozkien artean.

5. I. kapituluko kredituak ukitzen dituen edozein aurrekontu aldaketak Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusiaren aldeko txostena izan beharko du derrigorrez.”

Hirugarren xedapen gehigarria. Toki entitateen partaidetza funtsaren tratamendua.

1. 2009tik 2012ra bitarteko Toki Azpiegituren Planak indarra duen bitartean, toki entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsa osatzen duten eta Nafarroako Parlamentuak onetsitako kredituak, kapital transferentzien arloan, aurrekontuetan erabili gabe badaude ekitaldia ixtean, diruzaintzako soberakin atxikitat hartuko dira.

Ekitaldia ixtean aurrekontuetan erabili ez diren kreditu onetsi horiek 2009-2012 planeko ekitaldi bakoitzeko aurrekontu kredituarekin batera esleitu ko dira, aurrekontuen erritmoaren arabera eta funts horien exekuzioaren arabera; erritmo horren arabera, hurrengo ekitaldietara esleitu daitezke, baina diru zenbateko osoa aldatu gabe.

2. Halaber, 2009tik 2012ra bitarteko Toki Azpiegituren Planak indarra duen bitartean:

a) Doikuntzak egin ahal izanen dira toki ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsa osatzen duten kapital transferentzietan dagozkien kreditu erantsien artean.

b) Indarririk gabe gelditu da Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legearen laugarren xedapen iragankorra.

Laugarren xedapen gehigarria. Urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 10. artikuluko 4.b) idatz-zatia aldatzea.

Urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen 10. artikuluko 4.b) idatz-zatia aldatu da. Honela gelditu da:

b) Aurreko letran ezarritakotik salbuetsita izanen dira zerbitzuberu, atalburu, arlo klinikoko buru eta oinarrizko osasun laguntzako taldeetako buru diren fakultatibo espezialistak, horiek dedikazio eskusiboko araubidean eman beharko baitute zerbitzua, betiere, horretarako eskaintako hilabeteko epean, eta behin bakarrik izendatuak izan diren epe bakoitzeko, ez badute aukeratzen eskusiboa ez den dedikazioan aritzea, horietariko araubide bakoitzak araudi indardunaren arabera dituen eskubide eta betebeharrekin, eta fakultatibo espezialistek eta oinarrizko osasun laguntzako taldeetako medikuek aukera hori egiteko erregelamenduz ezarritako baldintzetan.

Bosgarren xedapen gehigarria. Hirugarren adinekoentzako zerbitzuak finantzatzen laguntzeko, egoitzetako erabiltzaileek egin beharreko diru-ekarpena arautzen duen abenduaren 29ko 17/2000 Foru Legeak ezarritako gehieneko prezioak gaurkotzea.

Hirugarren adinekoentzako zerbitzuak finantzatzen laguntzeko, egoitzetako erabiltzaileek egin beharreko diru-ekarpena arautzen duen 17/2000 Foru Legearen azken xedapenetan bigarrenean ezarritakoari jarraikiz, foru lege honek indarra hartzearekin batera, gehieneko prezio hauek finkatuko dira hileko:

Baliatzen den/mendekotasunik ez duenaren tokia: 861,74 euro hilean.

Laguntza behar duen eta mendekotasuna duenaren tokia: 1.933,52 euro hilean.

Eguneko zentroko tokia: 958,91 euro hilean.

Seigarren xedapen gehigarria. Foru Komunitateko zergadunek gizarte-intereseko beste xede batzuetarako bideratzen duten tributuen %0,7 arautzeari buruzko ekainaren 5eko 7/2009 Foru Legea aldatzea.

5. artikuluari 2. idatz-zatia gehitu zaio. Hauxe da:

Taldeetako bakoitzarentzako deialdiak ebatzita, dagozkien kontu-sailetan kreditu soberakinik badago, hori gainerako taldeetara zuzendu ahalko

da, ehuneko berria Nafarroako Gobernuaren erabaki bidez ezarriz.

Zazpigarren xedapen gehigarria. Zenbait Zerga Aldatu eta Beste Zerga Neurri Batzuk Hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen aldaketa.

1. Indarrik gabe utzi da Zenbait Zerga Aldatu eta Beste Zerga Neurri Batzuk Hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriaren 1.a) idatz-zatia.

2. Aldatu da Zenbait Zerga Aldatu eta Beste Zerga Neurri Batzuk Hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriaren 1.b) idatz-zatia. Honela gelditu da:

“b) Lau seme-alaba edo gehiagoko familiei laguntza emanen zaie 18 urtez beherako seme-alaba bakoitzeko, laugarrenetik aitzina, laugarrena barne dela, haien errenta erregelamenduz ezarzen diren mugetatik gora ez badago.

Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak finkatuko du laguntzaren zenbatekoa, 3. idatz-zatian aipatzen den urteroko deialdian.

Laguntza hori pertsona fisikoen errentaren gaineko zergatik salbuetsirik egonen da.”

3. Aldatu dira Zenbait Zerga Aldatu eta Beste Zerga Neurri Batzuk Hartzeko martxoaren 17ko 16/2003 Foru Legearen lehen xedapen gehigarriaren 2. eta 3. idatz-zatiak. Honela gelditu dira:

“2. Laguntza hori Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak eman eta kudeatuko du, eta langileek laneko eta familiako eginkizunak batera eramateko eta jaiotza-tasa sustatzeko ezarritako laguntzekin bat artikulatuko da.

3. Familia, Gazteria, Kirol eta Gizarte Gaietako Departamentuak deialdi bat argitaratuko du urtero aipatu laguntza emateko, eta bertan ezarriko dira laguntza jasotzeko betebeharrak, zenbatekoa eta ordainketa egiteko modua.”

Zortzigarren xedapen gehigarria. Transferentzien Batzordea.

Abenduaren 19ko 2356/1984 Errege Dekretuak ezarritako Transferentzien Batzordean Nafarroako Gobernuak duen ordezkari-tza Parlamentuko talde guztiek izanen dute ordezkaria, espresuki hala eskatuta badute, edo hala eskatzen badute. Estatuko zerbitzuen transferentziari Nafarroako Gobernuaren ordezkari-tzak adostasuna emateko, talde parlamentarioen ordezkari gehienek botoa beharko da haren alde, eta horretarako, ordezkari

bakoitzak bere taldea osatzen duten foru parlamentari adina boto izanen du.

Bederatzigarren xedapen gehigarria. Kontu-sail zabalgarriei buruzko informazioa.

Nafarroako Gobernuak hiru hilabete behin agerraldia egingen du Parlamentuko Ekonomia eta Ogasun Batzordean, foru lege honen arabera zabalgarririk diren kontu-sailetan aukera horren erabilerrari buruz informatzeko, haiek gaitzeko kreditua amaitu ondoren.

Hamargarren xedapen gehigarria. Hondakin uren saneamendu kanonaren tarifak.

1. Hauek dira 2011ko ekitaldian aplikatuko diren saneamendu kanonaren tarifak:

a) Uraren etxeko erabilerrari aplikatzekoak zaizkien karga-tasak: 0,495 euro/metro kubikoa.

b) Etxekoak ez diren uraren erabilerrari aplikatzekoak zaizkien karga-tasak:

b.1. Etxekoak ez diren erabilerrarako saneamenduko sare publikoei lotutako bezeroak: 0,619 euro/metro kubikoa. Karga kutsatzaileari dagokion indize zuzentzailea aplikatuko da, hala behar denean, apirilaren 5eko 82/1990 eta maiatzaren 22ko 191/2000 foru dekretuetan ezarritakoaren arabera.

b.2. Etxekoak ez diren erabilerrarako saneamenduko sare publikoei loturik ez daudenak eta beharrezkoak diren baimen administratiboak dituzten bezeroak, erakunde eskudunek emanak: 0,077 euro/metro kubikoa. Ibilgu publikora isurtzeko baimenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira, aurreko b.1 letran ezarritako tarifa aplikatuko da.

2. Arazketa-instalazio pribatuetatik datozen lohien tratamenduari tarifa hauek aplikatuko zaizkio 2011ko ekitaldian, baldin eta onartzen badira Nafarroako ibaien saneamendurako plan zuzendaritari atxikitako hondakin-uren araztegi-tako lohien ataletan:

Neurketa	Prezioa
5 m bitarte	37,71 euro
10 m bitarte	75,42 euro
10 m baino gehiago	7,54 euro/m

3. Aurreko zenbatekoei balio erantsiaren gaineko zerga gehituko zaie.

Hamaikagarren xedapen gehigarria. Prezio mugatuko etxebizitza libreak.

2011ko urtarrilaren 1etik aurrera, prezio mugatuko etxebizitzaren eta horien eranskinen gehieneko

salneurriak etxebizitza babestuaren moduluak 2011n, 2010. urtearekiko jasandako portzentaje aldaketa bera izanen du.

Hamabigarren xedapen gehigarria. Itundutako ikastetxeak mantentzeko funts publikoak banatzeko modulu ekonomikoak.

Hezkuntza maila nahiz modalitateetan itundutako ikastetxeen eskola unitate bakoitzeko modulu ekonomikoen urteko zenbatekoak honela daude banatuta: "Irakasleen soldatak, gizarte-prestazioen kargak barne", itundutako unitate bakoitzeko irakasle titular eta agregatuaren ratioa zehaztuta; "Gastu aldakorrak" eta "Bestelako gastuak", kontzeptu bakoitzak modulu osoan duen portzentajea adierazita. Zenbateko horiek I. eranskinean ageri dira.

"Irakasleen soldatak, gizarte-prestazioen kargak barne" kontzeptuan biltzen da irakasleen ordainsarien eta beren gizarte kargen ondoriozko kostua, irakaskuntza mailen arabera.

"Gastu Aldakorrak" kontzeptuan honako hauek azaltzen dira: irakasleen antzinasunaren kostua eta Gizarte Segurantzaren duen eragina, irakasleen ordezkapenen kostua, zuzendaritzako osagarriarena eta Langileen Estatutuaren 68.e) artikuluan ezarritakoaren ondoriozko betebeharraren.

Diru kopuru horiek funts orokor batean bilduko dira, eta hori banan-banan banatuko da ikastetxe itunduetako irakasleen artean, irakasle bakoitzaren egoeraren arabera.

Hamahirugarren xedapen gehigarria. Ikasliburuak doan jasotzeko programako liburuaren salmenta.

Ikasliburuak doan jasotzeko programako liburuak saldu ahalko dira liburu-salmentan jarduteko gaikuntza ematen dien baimena daukaten establezimenduetan soilik.

Hamalagarren xedapen gehigarria. Irakasleei prestakuntza ikastaroak emateagatik kalte-ordainak ematea.

1. Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen langileek prestakuntza jardueraren batean irakasle gisa parte hartzen badute, dela Hezkuntza Departamentuak urtero prestatzen duen Irakasleak Prestatzeko Planean biltzen direnetan, dela Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusiak, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusiak edo Irakasleentzako Laguntza Zentroek zuzenean antolatuetan, kalte-ordaina jaso ahalko dute, betiere jarduera hori kasuan kasuko lanalditik kanpora egiten badute. Kalte-ordain hauek izanen dituzte:

Prestakuntza presentziala:

a.1. Ponentzia bakoitzeko, hots, aditu batek prestakuntza jarduera batean ematen duen eskola ordu bakoitzeko, 58,66 euro ordainduko dira, gehienez.

a.2. Konferentzia bakoitzeko, hots, aditu batek zientzia, teknologia edo gizarte gai interesgarri bati buruz ematen duen jendaurreko hitzaldia, 90 minututik gorakoa, 358,18 euro ordainduko da gehienez.

Urrutiko prestakuntza:

b.1. Urrutiko prestakuntza jardueretan koordinatzaile telematiko gisa parte hartzeagatik 1.038,72 euroko ordaina emanen da gehienez, guztira bost tutore koordinatzeagatik. Koordinatu beharreko tutoreak bost baino gutxiago baldin badira, koordinatzailearentzako ordainsaria proportzioan kalkulatu da. Koordinatu beharreko tutoreak bost baino gehiago baldin badira, koordinatzaile telematikoak 97,38 euroko ordainsaria jasoko du, tutore bakoitzeko bosgarren tutoretik aurrera.

b.2. Urrutiko prestakuntza jardueretan tutore telematiko gisa parte hartzeagatik 46,52 euroko ordaina emanen da gehienez, tutoretzapeko ikasle bakoitzeko.

2. Aurreko idatz-zatian adierazitakoa ez zaie aplikatuko Irakasleentzako Laguntza Zentroetan edo irakaskuntza ez-unibertsitarioko prestakuntza jarduerak diseinatu eta garatzen dituzten unitate organikoetan destinoa duten langileei.

Hamabosgarren xedapen gehigarria. Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko ordainsariak eta osagarriak.

1. Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko irakaskuntzako zuzendaritzako postuaren osagarria izanen da 1.000 ikasletik gorako ikastetxeei dagokiena, 1997ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorre buruzko urtarilaren 31ko 1/1997 Foru Legearen hamabosgarren xedapen gehigarriko b) letran ezarri bezala.

2. Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan irakastordu guztiak ematen dituzten Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleei esleitutako irakaskuntzako osagarri berariazkoa Musika eta Arte Eszenikoetako katedradunen kidegoko funtzionarioek jasotzen duten bera izanen da.

3. Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan irakastordu batzuk ematen dituzten Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kasuan, Musika eta Arte Eszenikoetako katedradunei esleitutako irakaskuntzako osagarri berariazkoaren eta Musikako eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoari

esleitutakoaren arteko aldea jasoko dute, zentro horretan egindako lanaldiaren ehunekoaren arabera.

Hamaseigarren xedapen gehigarria. Irakasle-en irakastorduak zehaztea.

Irakasle-lanpostuak ikasturte bakoitzaren hasieran dauden beharizanen arabera betetze aldera, eta baldin eta kasuan kasuko espezialitatean ez badago irakastordu nahikorik, unibertsitateaz kanpoko irakasleek beste espezialitate batzuetan irakatsiz osatuko dute beren ordutegia, Hezkuntza Departamentuak ezarritako kasuetan eta baldintzetan betiere.

Hamazazpigarren xedapen gehigarria. Irakaskuntzako zenbait lanposturen lansari osagarri-en aldaketa.

Nafarroako Gobernuari baimena ematen zaio irakaskuntzako zuzendaritzako postuaren osagarria aldatzeko. Horretarako, ikastetxeetan dauden departamentuetako burutzen kopuru eta ezaugarriei buruzko azterketa eginen da alde zuzenetik, betiere azterketa horrek gastu osoa handitzea ekartzen ez badu.

Hemezortzigarren xedapen gehigarria. Ikasketen buruaren ondokoaren osagarria Hizkuntzen Tratamendu Integratuko programa ematen duten ikastetxeetan.

Hizkuntzen Tratamendu Integratuko programa ematen duten ikastetxeetako ikasketen buruaren albokoaren eginkizunak hartzen dituzten irakasleek irakaskuntzako zuzendaritzako postuaren osagarria jasoko dute. Osagarria kasuko mailaren hasierako soldataren % 13koa izanen da, edo programan sartzen diren unitate kopuruaren arabera dagokiena, 1997ko ekitaldiko Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko urtarrilaren 31ko 1/1997 Foru Legean ikasketen buruarentzat ezarritako arau jarraituz.

Hemeretzigarren xedapen gehigarria. Irakasleei prestakuntza jardueretara joateko egindako kilometroengatik kalte-ordainak ematea.

Prestakuntza jardueretara joateko kilometroei dagokien kalte-ordaina jasotzeko eskubidea izanen dute, hezkuntza administrazioak, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiaren edo Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiaren Ebazpenaren bidez, espresuki aginduta joan behar duten irakasleek, betiere eskubide hori espresuki aurreikusirik badago kasuan kasuko ebazpenarekin.

Hogeigarren xedapen gehigarria. Irakaskuntzako praktiketan dauden funtzionarioen ordainsariak.

1. Irakasle kidegoetan sartzeko izangaiek, praktiketako funtzionario izendatutakoak badira, honako ordainsari hauek jasoko dituzte izaera horrek dirauen bitartean: betetzen duten lanpostuaren mailako oinarritzko soldata eta ordainsari osagarriak, bai eta antzintasun saria ere.

2. Hautatutako izangaiek, karrerako irakasle funtzionario izanik praktikaldia egin behar dutenek, honako ordainsarien artean aukeratu beharko dute praktikaldia egin bitartean jasotzeko:

a) Lanpostu berdinean eta antzintasun berekin karrerako irakasle funtzionario batek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan osotara jasotzen dituen ordainsariak.

b) Praktiketako funtzionario zein mailatarako izendatzen dituzten, horren oinarritzko soldata eta betetzen duten lanpostuaren ordainsari osagarriak, bai eta antzintasun saria ere.

Hogeita batgarren xedapen gehigarria. Hezkuntza Departamentuan erradiodiagnostikoko instalazioen ikuskapenaz eta kontrolaz arduratzen diren langileen osagarria.

Erradiodiagnostikoko instalazioen ikuskapen eta kontrol lanak egiten dituen Hezkuntza Departamentura atxikitako langileak maiatzaren 4ko 14/1999 Legearen 16.2.B.1 artikuluan ezarritako tasari dagokion osagarriaren baliokidea izanen du. Lege horren bidez, Segurtasun Nuklearreko Kontseiluak emandako tasa eta prezio publikoak arautu ziren.

Hogeita bigarren xedapen gehigarria. Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroko arloko arduradunen ordainsari osagarriak.

Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroan arloko arduradun diren irakasle funtzionarioek irakaskuntzako aholkulariaren lanpostuari esleitutako osagarria jasoko dute.

Hogeita hirugarren xedapen gehigarria. Ikastetxe publiko berriak.

Hezkuntza Departamentuak ikastetxe publiko bat sortu baino lau hilabete lehenago ere izendatu ahal izanen ditu irakaskuntzako zuzendaritza karguak, erregelamendu organikoetan ezarritako eginkizunak betetzeko.

Hogeita laugarren xedapen gehigarria. Osasun eskualde oinarritzkoen aldaketak.

Nafarroako Gobernuak, bere ekimenez edo interesa duen udalak edo, hala badagokio, kontze-

juak eskatuta, osasun eskualde oinarriko batean dauden barruti eta atalak ondoan dagoen beste bati esleitu ahalko dizkio, osasun laguntzaren arloko inguruabarrak direla-eta hala jokatzeko komeni denean.

Edozein kasutan ere, aldaketa-espeditentean agertuko da entzunaldia eman zaiola oinarriko eskualde horietako ordezkari organoari, horrelakorik badago, eta lurralde banaketa berriaren ondorioz ukitutako udal edo kontzejuetako ordezkari organoari.

Hogeita bosgarren xedapen gehigarria. Osasun Sistema Nazionaletik etorritako langileei aitortutako lanbide karreraren maila aplikatzea.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan lanpostu finkoa lortzen duten medikuei Osasun Sistema Nazionalerako beste osasun zerbitzu batean egiaztatutako karrera gradua aitortuko zaio espezialitate, lanbide kategoria edo titulazio talde berdinei dagokienez. Gradu horien ordainsariak apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legean ezarritakoaren arabera izan behar dira. Foru lege horren bidez arautu zen Osasunbidea? Nafarroako Osasun Zerbitzuko osasun arloko langileen lanbide karreraren sistema eta hori garatzeko araudia.

Hogeita seigarren xedapen gehigarria. Udaletako osasun arloko funtzionarioak.

Udaletako osasun arloko funtzionario titularrek, foru lege honek indarra hartzen duen egunean lanpostuaren jabe badira, aukeran izan behar dute Foru Komunitateko Administrazio funtzionario izatera pasatzea, tokiko osasun zerbitzuetara. Horretarako, eskabide idatzia aurkeztu behar dute Foru Komunitateko Administrazio Erregistro Orokorrean, foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik 30 egun naturaleko epean.

Hogeita zazpigarren xedapen gehigarria. Nekazaritza Bermatzeko Europako Funtsetik (FEAGA) eta Nekazaritza aldean garapenerako Nekazaritzaren Europako Funtsetik (FEADER) heldu diren laguntzak kontrolatzeko laguntza kontratuak.

Europako FEAGA eta FEADER funtsen kontuak kitzatzeko prozedurari dagokionez, Europako Kontseiluaren 1290/2005 Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen Europako Batzordearen ekainaren 21eko 885/2006 Erregelamenduaren ondoriozko betebeharrak beteko direla bermatzeko, Landa Garapenerako eta Ingurumenerako Departamentuak laguntza kontratuak egin ditzake, Europako funts horietatik heldu diren laguntzen eskatzaileei ordainketak egiteko oinarri

hartzen diren egitateak kontrolatu eta egiaztatze-ko, edo Nafarroako Foru Komunitateko Erakunde Ordaintzailearen funtzioak betetzen laguntzeko. Era berean, mandatua eman diezaieke Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren entitate instrumentalei eginkizun horiek betetzeko.

Hogeita zortzigarren xedapen gehigarria. Toki esparruko industrialdeak sustatzeko laguntzak.

Ekimen publikoko industrialdeen akatsak eta ezak konpontzeko inbertsioak sustatzen dituzten toki entitateek, haiei badagokie industrialdeak zaindu eta mantentzea, zilegi izan behar du udal esparruko jardura ekonomikoak paratzeko industrialdeen sustapenari buruzko otsailaren 27ko 2/1997 Foru Legearen 5. artikuluan ezarritako laguntzak jasotzea, baldin eta egin zirenetik gutxienez hamabost urte iragan baldin badira eta 300.000 eurotik gorako inbertsioak egin behar badira.

Jardura ekonomiko tradizionalerako poligonoez gain, beste sustapen batzuk ere parekatu ahal zaizkie poligonoei, hala nola espazioak prestatzea udal jabetzapeko eraikin finkatuetan, enpresek errenta-kontratuen bidez erabiltzeko ondoren. Gisa horretako ekimenetan lehentasuna izan behar dute sustapen publikoko industria-lurzorurik ez duten udalek.

Halaber, Nafarroako Gobernuaren ekimenez, Navarra de Suelo Industrial, S.A. (NASUINSA) izeneko sozietateak zilegi du honako honetarako beharrezkoa den lurzoria zuzenean eskuratzea: toki entitateekin batera lankidetzan arituz, toki esparruko jardueretarako poligonoeak garatzeko. Halakoak sustatzeko foru legean ezarritako onurak eskuratzeko aukera izan behar du.

Hogeita bederatzigarren xedapen gehigarria. Zorraz geroratzeko baldintza bereziak arazok dituzten enpresentzat.

Berrikuntza, Enpresa eta Enpleguko kontseilariaren otsailaren 9ko 39/2010 Foru Aginduaren bidez edo horren ordezkari arauaren bidez, arazoak dituzten enpresentzat ezarritako laguntza araubideari atxiki zaizkion enpresei Nafarroako Gobernuak baldintza bereziak eman ahal izan behar dizkie Nafarroako Foru Komunitatearekiko dituzten zorraz zatitu eta geroratzeko, enpresa bere bitartekoez baliatuz bideragarria izan dadin behar diren amortizazio epeari eta sistemari dagokienez, legezko interes indardunaren ehuneko 50etik beherako interes tasa aplikatuz. Gainerako baldintzei dagokienez, Nafarroako Gobernuak zorraz zatikatu eta geroratzeko oro har ezartzen dituenak izan behar dira.

Hogeita hamargarren xedapen gehigarria.
NASUINSArekiko lankidetzaren hitzarmenak.

Ahalmena ematen zaio Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari behar dituen lankidetzaren hitzarmenak egiteko "Navarra de Suelo Industrial S.A." (NASUINSA) sozietatearekin; hain zuzen ere, hitzarmen horien helburua da industria azpiegituren eskasiak betetzea, betiere kasuan kasuko urterako Nafarroako Aurrekontu Orokorretan horretarako jartzen diren kontu-sailen kontura.

Hogeita hamaikagarren xedapen gehigarria.
Bermeak ematea.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legeko 33.2 artikuluan aipaturiko berme-ematea ez zaie aplikatuko Berrikuntza eta Teknologia Zentroei, baldin eta halakotzat aitortuak izan badira Berrikuntza eta Teknologia Zentroyen erre-

gistroa arautzen duen abenduaren 20ko 2609/1996 Errege Dekretuari jarraituz.

Hogeita hamabigarren xedapen gehigarria.
Gizarte ongizatearen arloko prestazio bidegabeki jasotakoak itzultzea.

Gizarte Gaien eta Garapenerako Lankidetzaren Zuzendaritza Nagusiak, Nafarroako Mendekotasun Agentziak eta Familiaren Zuzendaritza Nagusiak ordaintzen dituzten aldizkako prestazio eta pentsio gisa bidegabeki jasotako kopuruak zatika itzultzea erabakiko du Ekonomia eta Ogasun Departamentuak, aipatu diren erakunde autonomoak eta zuzendaritza nagusiak proposatuta, kasua bada, eta ez du ez interesik ez bermerik eskatuko.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Foru Lege honek 2011ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

I. ERANSKINA
Hezkuntza mailetako moduluak eta ratioak, 2011. urterako

Hezkuntza maila	Irakasle ratioa		Langileen soldatak	% modulua	Gastu aldakorrak	% modulua	Bestelako gastuak	% modulua	Modulua, guztira
	Titularra	Agregatua							
Haur Hezkuntzako 2. zikloa	1,217		44.758,97	74,02	5.272,94	8,72	10.436,87	17,26	60.468,78
Lehen Hezkuntza	1,391		51.153,11	73,45	7.429,67	10,67	11.063,21	15,88	69.645,99
DBHko Lehen Zikloa	1,652		64.246,36	75,54	7.686,52	9,04	13.112,78	15,42	85.045,66
DBHko Bigarren Zikloa	1,728		73.019,70	75,02	9.600,07	9,86	14.718,67	15,12	97.338,44
DBHko Curriculum Aniztasunaren Unitateak, 3. eta 4. mailak	1,391		58.783,15	72,23	7.879,02	9,68	14.718,67	18,09	81.380,84
DBH Curriculum Egokituaren Unitatea	0,957	0,652	65.624,49	73,05	9.490,78	10,56	14.718,67	16,38	89.833,94
Batxilergoa	1,652		67.374,80	73,06	10.128,72	10,98	14.718,67	15,96	92.222,19
Sarrerarako P. Ikastaroa	1,522		64.294,07	72,91	9.165,85	10,39	14.718,67	16,69	88.178,59

Hezkuntza maila	Irakasle ratioa		Langileen soldatak	% modulua	Gastu aldakorrak	% modulua	Bestelako gastuak	% modulua	Langile osagarriak	% modulua	Modulua, guztira
	Titularra	Agregatua									
Oinarriko Hezkuntza Berezia. Psikikoak	1,087		39.963,37	45,03	4.660,40	5,25	11.063,21	12,47	33.064,65	37,26	88.751,63
Oinarriko Hezkuntza Berezia. Autistikak	1,087		39.963,37	48,77	4.660,40	5,69	11.063,21	13,5	26.253,16	32,04	81.940,14
Urritasun Anitze koen Oinarriko Hezkuntza Berezia	1,087		39.963,37	42,31	4.660,40	4,93	11.063,21	11,71	38.761,10	41,04	94.448,08
P.C.P.I.E.	1,087	1,087	81.981,81	52,25	11.939,24	7,61	14.718,67	9,38	48.258,72	30,76	156.898,44
HIP	0,696	0,391	40.703,20	48,82	5.350,87	6,42	11.063,21	13,27	26.253,16	31,49	83.370,44
Oin. Hezk. Ber. Psikikoak. DBH Berriazko Unit.	1,391		51.153,11	76,5	4.647,69	6,95	11.063,21	16,55			66.864,01

Irakasle ratioa astean 23 eskola-orduko lanaldia oinarri hartuz kalkulatu da. Unitate bakoitzeko orduen kalkuluan bazter utziko dira eskola-ordu laurden bat baino gutxiagoko kopuruak.

Erdi Mailako Heziketa Zikloak	Irakasle ratioa			Langileen soldatak	% modulua	Gastu aldakorrak	% modulua	Bestelako gastuak	% modulua	Modulua, gutxira
	Ikasmaita	Titularra	Agregatua							
1- EMHZ Administrazio Kudeaketa	1. 0,565		1	62.537,65	67,62	9.368,16	10,13	20.581,64	22,25	92.487,45
	2. 0,261		0	11.021,85	69,29	1.491,20	9,38	3.392,69	21,33	15.905,74
1. Administrazio Kudeaketa E.H.Z. (LOE)	1. 0,478		1,087	62.225,22	68,51	9.221,65	10,15	19.383,68	21,34	90.830,55
	2. 0,826		0,568	56.857,26	67,27	8.283,06	9,8	19.383,68	22,93	84.524,00
2- EMHZ Administrazio Kudeaketa hiru urtean	1. 0,391		0,348	29.978,67	64,21	4.442,56	9,52	12.264,24	26,27	46.685,47
	2. 0,391		0,261	26.617,20	68,45	3.949,51	10,16	8.317,43	21,39	38.884,14
	3. 0,261		0	11.021,85	69,29	1.491,20	9,38	3.392,69	21,33	15.905,74
2- EMHZ Administrazio Kudeaketa hiru urtean (LOE)	1. 0,478		0,435	37.014,16	66,86	5.427,70	9,8	12.922,45	23,34	55.364,31
	2. 0,304		0,609	36.389,20	66,49	5.419,53	9,9	12.922,45	23,61	54.731,18
	3. 0,565		0,348	37.326,67	67,04	5.431,78	9,76	12.922,45	23,21	55.680,90
3- EMHZ Erizaintzako Zainketa Lagungarriak	1. 0,435		1,304	68.791,99	70,18	10.348,28	10,56	18.885,29	19,27	98.025,46
	2. 0,261		0	11.021,85	69,29	1.491,20	9,38	3.392,69	21,33	15.905,74
4- EMHZ Soldadura eta Galdaragintza	1. 0,522		1,348	74.146,57	63,19	11.091,84	9,45	32.094,13	27,35	117.332,54
	2. 0,913		0,609	62.106,79	60,1	9.137,63	8,84	32.094,13	31,06	103.338,55
4- EMHZ Soldadura eta Galdaragintza (LOE)	1. 0,348		1,522	73.521,60	63,09	10.913,20	9,37	32.094,14	27,54	116.528,94
	2. 0,913		0,609	62.107,08	60,18	8.999,54	8,72	32.094,14	31,1	103.200,76
5- Aurreinprimaketa Arte Grafikoetan	1. 0,435		1,217	65.430,42	63,57	9.855,21	9,58	27.638,43	26,85	102.924,06
	2. 0,739		0,739	59.801,10	62,08	8.889,09	9,22	27.638,43	28,69	96.322,62
6- EMHZ inprimaketa Arte Grafikoetan	1. 0,609		1,043	66.055,35	62,62	9.814,74	9,3	29.617,48	28,08	105.487,57
	2. 0,261		0	11.021,85	69,29	1.491,20	9,38	3.392,69	21,33	15.905,74
7- EMHZ Arotz-lan eta Altz. Neur. Egin eta Instalaztea	1. 0,826		1	73.559,48	65,59	10.859,32	9,68	27.732,67	24,73	112.151,47
	2. 0,565		1	62.537,65	62,76	9.368,15	9,4	27.732,67	27,83	99.638,47
8- EMHZ Farmazia	1. 0,391		1,174	61.912,70	68,89	9.360,15	10,41	18.602,56	20,7	89.875,41
	2. 0,261		0	11.021,85	69,29	1.491,20	9,38	3.392,69	21,33	15.905,74
8- EMHZ Farmazia eta Parafarmazia (LOE)	1. 0,6522		0,913	62.850,20	70,02	9.229,80	10,28	17.682,93	19,7	89.762,93
	2. 0,6522		0,717	55.286,89	68,16	8.138,45	10,03	17.682,93	21,8	81.108,27
9- EMHZ Instalazio Elektriko eta Automatikoak (LOE)	1. 0,696		1	68.048,48	64,24	9.959,38	9,4	27.921,14	26,36	105.929,00
	2. 0,652		0,87	61.169,69	62,37	8.987,27	9,16	27.921,14	28,47	98.078,10
10- EMHZ Mekanizazioa (LOE)	1. 0,522		1,391	75.827,31	65,81	11.338,37	9,84	28.059,35	24,35	115.225,03
	2. 0,696		0,826	61.325,62	62,25	9.127,63	9,27	28.059,35	28,48	98.512,60
11- EMHZ Merkataritza	1. 1,043		0,696	70.979,19	70,53	10.376,28	10,31	19.281,11	19,16	100.636,58
	2. 0,261		0	11.021,85	69,29	1.491,20	9,38	3.392,69	21,33	15.905,74
12- EMHZ Laguntza Sozio-Sanitariua	1. 0,696		0,957	66.367,81	69,77	9.867,20	10,37	18.885,29	19,85	95.120,30
	2. 0,913		0,391	53.703,09	66,72	7.905,04	9,82	18.885,29	23,46	80.493,42
13- Eraikuntzako Makineriaren Erabilera eta Mantentze-lanak. EMHZ	1. 0,826		1	73.559,63	63,05	10.693,07	9,17	32.416,32	27,78	116.669,02
	2. 0,739		0,783	61.482,15	59,76	8.990,87	8,74	32.416,32	31,51	102.889,34

	Irakasle ratioa		Langileen soldata	% modulua	Gastu aldakorrak	% modulua	Bestelako gastuak	% modulua	Modulua, guztira
	Ikasmaita	Titularra							
Goi Mailako Heziketa Zikloak									
1- GMHZ Nazioarteko Merkataritza	1.	1,174	63.044,19	70,09	9.149,71	10,17	17.754,38	19,74	89.948,28
	2.	1,217	59.838,94	69,38	8.658,66	10,04	17.754,38	20,58	86.251,98
2- GMHZ Produktu Elektronikoen Garapena	1.	1,435	70.704,56	66,99	10.147,86	9,61	24.698,09	23,4	105.550,51
	2.	0,826	65.155,79	65,5	9.626,69	9,68	24.698,09	24,83	99.480,57
3- GMHZ Administrazioa eta Finantzak	1.	0,87	56.908,32	67,71	8.396,06	9,99	18.743,94	22,3	84.048,32
	2.	1,348	61.988,79	69,15	8.911,25	9,94	18.743,94	20,91	89.643,98
4- GMHZ Osasun Arloko Dokumentazioa	1.	1,043	64.256,22	67,7	9.390,20	9,89	21.260,18	22,4	94.906,60
	2.	0,261	11.021,85	69,29	1.491,20	9,38	3.392,69	21,33	15.905,74
5- GMHZ Haur Hezkuntza (LOE)	1.	0,913	67.149,14	70,92	9.727,08	10,27	17.810,93	18,81	94.687,15
	2.	1,087	56.009,02	68,42	8.037,69	9,82	17.810,93	21,76	81.857,64
6- GMHZ Merkatar. Kudeaketa eta Marketina	1.	1,043	70.979,19	71,01	10.376,28	10,38	18.602,56	18,61	99.958,03
	2.	0,261	11.021,85	69,29	1.491,20	9,38	3.392,69	21,33	15.905,74
7- GMHZ Informatika Sistemen Administrazioa	1.	1,304	76.958,81	71,55	11.127,89	10,35	19.479,00	18,11	107.565,70
	2.	1,13	66.249,43	69,47	9.640,73	10,11	19.479,00	20,42	95.369,16
7- Sareko Sistema Informatikoen Administrazioa GMHZ (LOE)	1.	1,217	76.646,51	71,58	10.953,99	10,23	19.479,00	18,19	107.079,50
	2.	1,304	67.820,00	69,96	9.639,42	9,94	19.479,00	20,09	96.938,42
8- GMHZ Erregulazio eta Kontrol Sistemak	1.	1,043	77.702,14	69,94	11.362,39	10,23	22.040,50	19,84	111.105,03
	2.	1,261	66.718,14	67,8	9.646,77	9,8	22.040,50	22,4	98.405,41
9- GMHZ Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa (LOE)	1.	0,69	69.731,94	66,41	10.201,96	9,72	25.075,04	23,88	105.008,94
	2.	1,304	66.874,43	65,92	9.503,01	9,37	25.075,04	24,72	101.452,48
10- GMHZ Garraioaren Kudeaketa	1.	0,783	59.957,34	69,24	8.885,10	10,26	17.754,38	20,5	86.596,82
	2.	1,435	60.620,13	69,64	8.668,74	9,96	17.754,38	20,4	87.043,25
11- GMHZ Informatika Aplikazioen Garapena	1.	1,261	73.441,09	71,33	10.632,85	10,33	18.885,29	18,34	102.959,23
	2.	1,13	62.887,95	69,17	9.147,68	10,06	18.885,29	20,77	90.920,92
12- GMHZ Anatomia Patologikoa eta Zitologia	1.	0,957	68.985,96	68,93	10.125,73	10,12	20.966,15	20,95	100.077,84
	2.	1,261	53.272,23	65,04	7.674,60	9,37	20.966,15	25,6	81.912,98
13- GMHZ Arte Grafikoen Industrietako Produktzioa	1.	0,391	68.635,66	64,44	10.346,27	9,71	27.525,31	25,84	106.507,24
	2.	1,13	66.249,43	64,06	9.640,73	9,32	27.525,31	26,62	103.415,47
14- GMHZ Proiektu Mekanikoen Garapena	1.	0,826	68.517,27	66,5	10.119,72	9,82	24.396,53	23,68	103.033,52
	2.	1,609	67.968,01	66,62	9.662,89	9,47	24.396,53	23,91	102.027,43
14- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua GMHZ (LOE)	1.	0,783	68.361,14	66,55	9.963,48	9,7	24.396,53	23,75	102.721,15
	2.	1,522	67.760,84	66,64	9.528,43	9,37	24.396,53	23,99	101.685,80

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua izapidetzeko egutegia.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 29an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Lehena. 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua izapidetzeko egutegia onestea. Egutegi horren xehetasunak hurrengo idatz-zatian jasota daude, eta laburpena honako hau da:

- Izapidetzeko onartzea (Mahaia eta Eledunen Batzarra): Urriaren 29an.
- Argitarapena: azaroaren 2an.
- Zuzenketak egiteko programari buruzko bilera: azaroaren 4an, 12:00etan.
- Ekonomia eta Ogasun Batzordearen lan-bilera: Azaroaren 10ean, 16:30ean.
- Zuzenketak aurkezteko epemuga: azaroaren 18an, 13:00etan.
- Osoko zuzenketak onartzea: azaroaren 18an.
- Zuzenketa partzialak ordenatzea: azaroaren 18an eta 19an.
- Gobernua: azaroaren 22an eta 23an.
- Zuzenketa partzialak onartzea: azaroaren 24an.
- Osoko zuzenketak eztabaidatzeko Osoko Bilkura: azaroaren 25ean, 09:30ean.
- Batzordea: azaroaren 30ean.
- Batzordeko eztabaida: Azaroaren 30etik abenduaren 15era
- Zuzenketak eta boto partikularrak mantentzea (epemuga): abenduaren 16an, 12:00etan.
- Osoko Bilkura: abenduaren 22an eta 23an.

Bigarrena. 1. 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua azaroaren 2ko Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratuta, osoko zuzenketak, artikuluen zuzenketak eta kontusailen zuzenketak aurkezteko epea

azaroaren 18ko 13:00etan amaituko da. Kontuan hartu beharko da 10:00ak baino lehenago egin behar zaizkiela zuzenketak kontusailei, horretarako zuzenketen programa informatikoa erabiliz.

2. Zuzenketak aurkezteko epe horren barruan, Ekonomia eta Ogasun Batzordearen lan-bilera deituko da, azaroaren 10erako, 16:30ean. Bertan Ekonomia eta Ogasun kontseilariak parte hartuko du, egoki deritzen zuzendari nagusi eta teknikariek batera.

3. Osoko zuzenketarik baldin badago, Ekonomia eta Ogasun Batzordeko Mahaiak izapidetzeko onartuko ditu, eta Parlamentuko lehendakaritzara bidaliko ditu abenduaren 18an. Balizko osoko zuzenketen eztabaida eta bozketa azaroaren 25eko Osoko Bilkuran egingen da.

4. Azaroaren 18an eta 19an, Ekonomia eta Ogasun Batzordeko Mahaiak ordenatu egingen ditu artikuluei eta aurrekontu-kontusailei aurkeztutako zuzenketak eta, kasua bada, Nafarroako Gobernari igorriko dizkio gastu-gehikuntza edo dirusarrera-murrizketa dakarten zuzenketak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 154. artikuluan eta horri loturikoetan adierazitako moduan.

5. Azaroaren 24an, Batzordeko Mahaiak zuzenketak onartuko ditu, bai eta, kasua bada, Nafarroako Gobernuak txostena egin duenekoak ere.

6. Azaroaren 30ean, Ekonomia eta Ogasun Batzordeak bilera hasiko du, eta bere eztabaidek abenduaren 15ean bukatu beharko dute, egun horretan eginga egon beharko baitu proiektuari buruzko irizpenak.

Hirugarrena. Erabaki hau parlamentu-taldeen eta foru parlamentarien elkarleen eledunei, Ekonomia eta Ogasun Batzordeko Mahaiko kideei eta Nafarroako Gobernuari igortzea, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2010eko urriaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzeko arauak.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2010eko urriaren 29an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua ikusita, Nafarroako Gobernuaren 2010eko urriaren 29ko Erabakiaz Legebiltzarrera bidali dena eta Parlamentuko Erregistro Orokorrean egun berean sartu dena, Erregelamenduko 153. eta 155. artikuluetan ezarritakolari jarraituz honakoa ERABAKI DU:

1. 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua –“proiektua”, aurretiaz – eztabaidatu eta bozkatzeko hurrengo arauak onestea.

Lehena. Proiektua Ekonomia eta Ogasun Batzordeari igorriko zaio, horrek irizpena eman dezan.

Bigarrena. Proiektua berehala argitaratuko da Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean, eta argitaratzearekin batera epe bat irekiko da, 2010eko azaroaren 18ko 13:00etan bukatuko dena, Parlamentuko taldeek, foru parlamentarien elkarteek eta foru parlamentariak zuzenketak aurkezteko; zuzenketa guztiak Ekonomia eta Ogasun Batzordeko Mahaiari zuzenduko zaizkio.

Hirugarrena. Zuzenketak honelakoak izan ahaliko dira: a) Proiektu osoari aurkeztuak; proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzeko proposatuko dute, eta hasierako proiektuaren oinarri izan zirenez bestelako printzipioetan oinarritutako proiektua lantzeko agindua emanen diote Nafarroako Gobernuari.

Programa eta Ekonomia Korrelazioa izenekoan ageri diren departamentu edo entitate bateko programa multzoa aurkatzeko helburua duten zuzenketak osoko zuzenketa gisa aurkeztu beharko dira.

b) Proiektuaren barruko edozein programa, proiektu zein kontusaili aurkeztuak.

Aurrekontuetako kontusailen zuzenketak egiteko, “Proyecto_Presupuestos_MDB” izeneko aplikazio informatikoa erabiliko da, azaroaren 19ko 10:00ak baino lehenago, eta, inprimatu eta sinatu ondoren, egun horretako 13:00ak baino lehenago aurkeztuko dira Erregistroan. Zuzenketa horiek egiteko, l. eranskinean jasotako jarraibideak aintzat hartuko dira.

c) Proiektuaren edozein artikuluri aurkeztuak.

Laugarrena. Kontzepturen batean gastuak gehitzea edo dirusarrerak gutxitzea dakarten zuzenketek Nafarroako Gobernuaren aurretiazko onspena beharko dute izapidetzeko onartuak izateko.

Hala ere, aipatu onspena ez da derrigorrezkoa izanen aurkeztutako zuzenketak zehazten baldin bada zein diren proiektuan izendaturiko baliabideak gastu gehikuntza edo dirusarreraren gutxitzea finantzatzeko.

Bosgarrena. Proiektuari aurkeztutako zuzenketek ezin dute inola ere proposatu murrizketarik Nafarroako Ogasun Publikoari buruzko apirilaren 4ko 13/2007 Foru Legeko 47. artikuluko 1. idatzatiko a), b), c) eta e) letretan jasotako kreditu zabalgarrietarako aurreikusitako kontsignazioan, eta horrelako zuzenketarik aurkezten baldin bada, onartu gabe utziko da.

Seigarrena. Zuzenketak aurkezteko epea bukatu baino lehen, Parlamentuko lehendakariak Ekonomia eta Ogasun Batzordearen eta Ekonomia eta Ogasun kontseilariaren arteko lan bilerarako deia egingen du; zuzendari nagusiekin eta egoki irizitako teknikariek bertaratu daiteke aipatu kontseilaria.

Zazpigarrena. Osoko zuzenketarik aurkeztu baldin bada, Batzordeko Mahaiak izapidetzea onartu ala ez erabakiko du, eta Batzordeko lehendakariak Parlamentuko lehendakariari bidaliko dizkio, eztabaidatu behar diren Osoko Bilkuraren gai zerrendan sar ditzan.

Zortzigarrena. Zuzenketak aurkezteko epea amaitu ondoren, eta behin osoko zuzenketak onartuta, halakorik bada, Batzordeko Mahaiak zuzenketak ordenatuko ditu, eta, ondoren, igorriko zaizkie Parlamentuko lehendakariari, parlamentu-taldeei eta foru parlamentarien elkarteei, Ekonomia eta Ogasun Batzordeko kideei eta Nafarroako Gobernuari. Halaber, Erregelamenduaren 154. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, erabakiko du Gobernuari igortzea gastuen gehitzea edo dirusarrerren gutxitzea ekar dezaketen zuzenketak.

Nafarroako Gobernuak txostena egin beharko du eta bi egun balioduneko epean bidali beharko du. Txostena jaso ondoren, Batzordeko Mahaiak iritzia emanen du Gobernuak txostena egin dueneko zuzenketak eta aurkeztutako gainerako zuzenketak izapidera onartzeari buruz.

Bederatzigarrena. Parlamentuko lehendakariak Ekonomia eta Ogasun Batzordea biltzeko deia egin dezake, hogeita lau ordu baino gutxiagoko aurrerapenarekin, eztabaidari ekiteko.

Hamargarrena. Osoko Bilkuran osoko zuzenketen eztabaida eta bozketa Erregelamenduko 89. eta 131. artikuluek ezarritakoaren arabera eginen da.

Hamaikagarrena. Osoko eztabaida bukatu eta Osoko Bilkurak proiektua Nafarroako Gobernuari itzultzea erabaki ez badu, edo osoko zuzenketarik ez bada aurkeztu, Legebiltzarreko Lehendakariak finkaturiko toki, egun eta orduan bilduko da Ekonomia eta Ogasun Batzordea, 9. arauaren arabera deialdian.

Hamabigarrena. Batzordean, honako hauek eztabaidatu eta bozkatuko dira lehenbizi, Erregelamenduaren 133. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako moduan: 2011rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren artikulak eta horiei aurkeztu zaizkien zuzenketak.

Hamahirugarrena. Ondoren, honako hauek eztabaidatu eta bozkatuko dira, Erregelamenduaren 133. artikuluan eta hurrengoetan ezarritako moduan: zuzenketak aurkeztu zaizkien gastu eta dirusarrerera kategoriatan ezberdinak eta horiei aurkeztu zaizkien zuzenketak. Zuzenketarik jaso ez dutenak elkaturik eztabaidatu eta bozkatuko dira.

Hamalagarrena. Zuzenketei eta boto partikularrei eusteko epea abenduaren 16ko 12:00etan bukatuko da.

Hamabosgarrena. Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatuko dira 2011rako Nafarroako aurrekontu orokorreari buruzko Foru Lege proiektuko artikulak eta haiei buruzko zuzenketa eta boto partikularrak. Multzoka eztabaidatuko dira; hain zuzen ere, parlamentu-talde bakoitzari edo foru parlamentarien elkarte bakoitzari txanda bat egokituko zaio bere zuzenketa eta boto partikular guztiak defendatzeko. Inork aparte bozkatzeko eskatzen ez baldin badu, elkaturik bozkatuko dira.

Testu artikuluduna bozkatuko da osotasunaren gaineko bozketa batean, salbu eta 2. artikulua, zeina amaieran bozkatuko baita, non eta ez den eskatzen arauaren baten bozketa bereizia egitea.

Hamaseigarrena. Horren ondoren eztabaidatu eta bozkatuko dira zuzenketen edo boto partikularren xede izan diren gastu eta dirusarrerera kategoriatan eta haiei buruzko zuzenketa eta boto partikularrak.

Haien eztabaida multzoka eginen da, departamentuz departamentu, halako moduz non parlamentu-talde eta foru parlamentarien elkarte bakoitzak departamentu berari dagozkion bere zuzenketa edo boto partikular guztiak batera defendatuko dituen; halaber, zuzenketa edo boto partikular horiei buruzko txandak elkaturik eginen dira. Elkaturik bozkatuko dira, inork aparte bozkatzeko eskatzen ez baldin badu. Zuzenketen edo boto partikularren xede izan ez direnak elkaturik eztabaidatu eta bozkatuko dira.

Hamazazpigarrena. Zuzenketak onestearren edo artikulua edo dirusarrerera- edo gastu-kontzeptuak bozkatzearen ondoriozko artikulak edo kontzeptu haiek zentzugabeak edo osatugabeak badira Aurrekontuak kontabilitate-lerroka biltzen dituen liburukiarekin alderatuta, Ekonomia eta Ogasun Batzordeko Mahaiak eta, kasua bada, Legebiltzarreko Mahaiak behar diren aldaketak sartzen ahalgo dituzte, gertatu ahal izan litezkeen zentzugabe-keriak zuzentzeko.

Hemezortzigarrena. Arau hauetan aurreikusita ez dagoen guztian, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoari jarraituko zaio.

Hemeretzigarrena. Legebiltzarreko Mahaiaren erabakiaren bidez aldatzen ahalgo dira arau hauek, Eledunen Batzarrarekin bat.

I. ERANSKINA

Aurrekontuetako kontusailetarako zuzenketak prestatu eta aurkezteko jarraibideak

Lehenbizikoa. 2011ko urterako aurrekontuen proiektuari aurkeztu beharreko zuzenketak prestatzeko aplikazioa 2010eko azaroaren 2an ipiniko da eskuragarri, Parlamentuko sareko "P:\\" unitatean, "2011Presupuestos" izeneko karpetan. Aplikazio hori Access-en bitartez garatua dago, eta "Proyecto_Presupuestos_MDB" izena du. Horrez gain, karpeta horretan argibide-dokumentu bat utziko da, programa nola erabili behar den azaltzen duena.

Oharra: "P:\\" sare-unitatea eskuragarri egoteko, beharrezkoa da erabiltzailea Parlamentuaren egoitzaatik konektatzea.

Informazioa eskuragarri egonen da parlamentari bakoitzarentzat eta parlamentu-taldeetako langileentzat; horretarako, dena den, informatikako teknikariek parlamentarien ordenagailu eramangarriak ikuskatu beharko dituzte, konexio-egokitzapenak egiteko.

Aplikazioan sartzearekin, informazioarekin eta programaren funtzionamenduarekin zerikusia duen edozein zalantza argitzeko, Asun Marzal andrearengana jo daiteke (telefonoa: 458).

Bigarrena. 2010eko azaroaren 18ko 10:00ak baino lehenago (horixe baita tresnaren eskuragarritasunaren epemuga), parlamentu-talde edo parlamentarien elkarte bakoitzak posta elektronikoko mezu bat bidaliko du sginfo@parlamento-navarra.es helbidera, alegia, informatikako teknikarien helbidera, horren bitartez jakinarazteko prest dauzkatela aurkeztu beharreko zuzenketak. Parlamentu-talde edo parlamentarien elkarte bakoitzak bidalitako posta elektronikoko mezua zer egun eta ordutan iritsi den erregistratuta geldituko da.

Hirugarrena. Une horretatik aurrera, informatikako teknikariek talde bakoitzaren "2011Presupuestos" karpetan dagoen datu-basearen kopia bat

eginen dute. Kopia egin ondoren, ezabatu eginen da aipaturiko karpetatik, kopiaturiko datuak manipulatuak ezin izateko.

Laugarrena. Parlamentu-taldeek edo foru parlamentarien elkarteek aukera izanen dute zuzenketak sinatzeko eskuz edo ziurtagiri digital baten bitartez. Eskuz sinatzekotan, informatikako teknikariek inprimatu eginen dituzte lehen aipaturiko aplikazioaren bidez prestatutako zuzenketak, eta parlamentu-talde nahiz foru parlamentarien elkar-teei helaraziko dizkiete, sina ditzaten.

Modu digitalean sinatzekotan, informatikako teknikariek PDF dokumentu bat sortuko dute, lehen aipaturiko aplikazioaren bidez prestatutako zuzenketa guztien edukiarekin, eta parlamentu-talde nahiz foru parlamentarien elkar-teei helaraziko diete, sinadura digitala egin dezaten. PDF dokumentua sinatu ondoren, informatikako teknikariek inprimatuko dituzte dokumentuan jasotako zuzenketak, eta parlamentu-talde nahiz foru parlamentarien elkar-teei helaraziko dizkiete berriz ere, hauek aurkez ditzaten.

Parlamentu-talde nahiz foru parlamentarien elkarteek 2010eko azaroaren 18ko 13:00ak baino lehen aurkeztu beharko dituzte zuzenketak, sinatuta, Legebiltzarreko Erregistroan.

Bosgarrena. Zuzenketak Erregistroan aurkezten diren unetik aurrera, kopiaturiko datu-basean bildutako informazioarekin lan eginen dute Legebiltzarreko zerbitzuek. Informazio hori Erregistroan aurkeztutako informazio berbera izanen da, zuzenketen datuak hartatik inprimatuak baitira.

2. Arau hauek parlamentu-talde nahiz foru parlamentarien elkarteen eledunei, Ekonomia eta Ogasun Batzordeko Mahaiari eta Nafarroako Gobernuari igortzea, eta Legebiltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen agintzea.

Iruñean, 2010eko urriaren 29an

Lehendakaria: Elena Torres Miranda

